

Kultura

San Agustinek 9 kultur emanaldi areto barrutik Durangoko kaleetara aterako ditu, ekainean eta uztailean. > 11



INGURUMENA



Durangoko Gran Hotelek kaleratu zuen langilea berriro hartuko dute

Ainhoa Mendok Angelman sindromea duen alaba zaintzeko lanordu murrizketa eskatu zuen. Lan berrantolaketa bat langilea kaleratzeko aitzakia lez baliatu izana salatu zuten hainbat eragilek astelehenean. Hoteleko arduradunek egoera bideratzeko borondatea erakutsi, eta atzo arratsaldean batu ziren. Langilea berriro hartzea adostu dute. > 3

“Nire sasoiari ziklistak libreago ibiltzen ginen; gaur egun milimetrora kontrolatuta dago dena”



Javier Elorriaga | Txirrindulari ohia > 19



Txakur asko daude abandonatuta babes zentroetan, eta animalia hauen aldekoek adopzioarako deia egingo dute domekan, Durangon. Hiru lagunek euren adopzio esperientzia kontatu dute. > 2

Adopzioa, txakur askoren salbazioa

Lehior Elorriaga

WEB APLIKAZIOEN GARAPENEAN

Goi mailako teknikaria



AURREMATRIKULA: EKAINAREN 6TIK 17RA

- Goi mailako teknikari hauek web aplikazio informatikoak garatu eta kudeatuko dituzte, bezero eta zerbitzari inguruneetan.
- Datu baseen kudeaketaz eta zerbitzu, interfaze eta multimedia osagaien garapenez arduratuko dira.
- Profesional honek enpresa edo erakunde publiko zein pribatuetan gauzatzen du bere jardura, besteren kontura zein bere kontura, web inguruneekin (intranet, extranet, App-ak eta Internet) erlazionatutako Informatika-aplikazioak garatzeko arloan lan eginez.

LEA ARTIBAI

Markina-Xemein · 94 616 90 02
info@leartik.com · www.leartik.com

Berriz > 6

Berrizko plataformak isunaren erantzuleak bilatzea eskatu du

Abadiño > 9

Kaleartean alkateagaz bilduko da birkalifikazioaz hitz egiteko

Durangaldea > 4

Adierazpen egunak eskualdean Gure Esku Dagok antolatuta

Zornotza > 8

Larreko futbol zelaia errugbian ere jokatzeko moldatuko dute

Herririk herri

“Baten batek txakur bat gura duela esatean, adoptatzera animatzen dut”

Txakurren adopzioaren aldeko jaialdia egingo dute domekan; esperientzia kontatu dute hiru lagunek



Ezkerretik hasita, Cayado eta 'Luna', Dordio eta 'Barry', eta Aranburu eta 'Amy'. Lehior Elorriaga

DURANGO Markel Onaindia Txakurren aldeko ekintzak gero eta gehiago dira Durangon. Txakurrak solte ibiltzeko guneen ordenantza berria, Durandog elkartearen sorrera, berbaldiak, galdutako txakurrak topatzeko taldeak... Domeka honetan txakurren aldeko jaialdia egingo dute Landako Gunean, Durandogek antolatuta, eta adopzioaren aldeko mezua zabalduko dute, batez ere. Hainbat lagunek, erosi beharrean, adoptatu egiten dute txakurra, asko baitira abandonaturik daudenak. Etxeko atea zabaldu dutenetako batzuk Amaia Aranburu, Iban Dordio eta Eneko Cayado dira. “Baten batek txakurra gura duela esatean, adoptatzera animatzen dut”, esan du Cayadok.

Aranburu eta Dordioaren etxean hiru txakuraldi baterako eduki dituzte, etxe berri bat topatu bitartean. Dordio

azaldu du zelan murgildu ziren abenturan: “Auzokide batek errepidean topatutako txakur bat ekarri zigun, Txoko. Ha-

“Zubi batetik bota zuten, eta atzeko hankak apurtuta zituen; hasieran ezin zuten ezta ibili ere”

mar egunean etxea topatu gunion, eta esperientziak zapora ona utzi zigun”. Gero, Iruñeko Basati babes elkartetik *Cash* txakurraren berri eduki zuten. Kasik miraria zen bizirik egotea. “Azpeitiko zubi batetik bota zuten, eta atzeko hankak apurtuta zituen; hasieran ezin zuten ezta ibili ere egin. Oso lagunkoia zen”. Hiru hilez egon zen euren etxean. Hirugarren txakurra, *Nebraska*, sei hilez eduki zuten.

Txakurra joatean, pena baino, poztasuna sentitzen dela dio Aranburuk, etxe on batera doalako. “Hutsune bat geratzen da, baina beste txakur batek bete dezan”. Euren hutsune hori *Barry* bete du orain, eta behin-betiko adoptatu dute. *Amyri* egiten dio konpainia, 2014an orratzez betetako saltxitxa bat jan ostean ezagun egin zen txakurretako bati, hain zuzen ere.

Maitasuna eta heziketa

Cayadok 13 urtez eduki zuen txakur bat, eta, hura hil ostean, Basati elkartean topatu zuen *Luna*. “Hasieran kezka apur bat neukan, ea ondo eramango ote ginen... Txakurrak bere pertsonalitatea osatua izaten du. Baina, orain, banaezinak gara. Maitasuna eta beragaz egotea behar zuten, batez ere”.

Maitasunaz gainera, heziketa oso garrantzitsua izaten da

kasu hauetan. “Gure helburua txakurra ondo hezteka izaten da, babes-etxe batera bueltatu ez dadin”, azaldu du Aranburuk. Izan ere, abandonaturako txakur hauek esperientzia txarraren karga edukitzen dute kasu askotan, eta euren heziketa ez da zeregin erraza izaten. Dordio: “*Barry*gaz, oraindik, kontu handia eduki behar izaten dugu, ezin dugu parkean askatu eta lasai egon. Baina lau hiletan hobera egin du”. *Barry* jendeagaz eta autoekin arazoak zituen, eta *Luna* bizikleta eta baloiekin obsesioa zeukan hasieran. Ez dute etsi gura, eta badakite ez dela jolas bat, Dordio dioenez: “Txakurrari ezin dizkiozu pilak kendu eta armairuan gorde”.

Txakurren babes etxeak gainezka daudela dio Aranburuk, eta horren inguruko informazioa domekan jaso ahalko da, Landakon, 10:00etatik aurrera.

Epaiketaren kostuak polemika eragin du

DURANGO M.O.

EH Bilduko Iker Urkiza zinegotziak udaleko 14 dokumentu eskatu zizkion Aitziber Irigoras alkateari, gehienak egoera ekonomikoagaz lotutakoak. Baina, alkateak ez zizkion eman, eta Urkizak epaitegietara jotzea erabaki zuen, bere informazio eskubidea urratu zelakoan. Epaileak arrazoia eman dio, eta dokumentuak emateko aginduaz aparte, epaiketaren kostuak — 5.500 euro — udalaren kargu utzi ditu. EH Bildu eta Herriaren Eskubidea alderdiek uste dute kostu horiek ez direla udal aurrekontutik atera behar, udal gobernuak bere gain hartu behar dituela baizik. “Zergatik ordaindu

Perera: “Jendeak jakin egin behar du gauzak zelan egiten diren udalean”

behar dugu durangar guztiok alkateak galdutako epaiketa baten kostua? Ez du interes orokorra defendatu”, esan du Dani Maeztuk (EHB). Julia Pereraren ustez, “larria” da informazioa ukatzea. “Jendeak jakin egin behar du gauzak zelan egiten diren udalean”. Ondorioz, kanpaina bat egingo dute *Ez nire diruarekin* lemapean.

Gaia martitzeneko osoko bilkurara eraman zuten, baina EAJk eta PSE-EEk ez zioten erantzunik eman euren galderari; PPK ere ez zuen ekimena babestu. Goiztidi Diazek (EAJ) eta Pilar Ríošek (PSE-EE) adierazi zuten gobernutik E-administrazioa ekimenaren aldeko apustua egin dutela, eta horri esker, herritarrek eskura edukiko dituztela udaleko agiri eta informazio guztiak.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2016ko ekainaren 3a
14. urtea - 635. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza eta Nagore
Txintxurreta Isasi.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi eta Paul
Bustindui Revuelta.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek
Bizkaiko Foru
Aldundiaren
laguntza jaso du



Gran Hotel-ek kaleratutako langilea berriro hartuko dute

Atzo arratsaldean alde biek egindako batzarrean adostu zuten



Lehen planoan ezkerretik: Alfonso Aranguren (LAB), Ainhoa Mendo eta Joseba Antxustegi (Angelman Sindromea Elkarte).

DURANGO J. Derteano
Apiril erdian, Ainhoa Mendo Gran Hotel Durangoko langileak lan orduen murrizketa eskatu zuen Angelman sindromea duen bere alaba zaintzeko. Enpresak denbora eskatu zion, berregituraketa batean zeudela argudiatuta. Handik egun batzuetara, maiatzaren 9an, Mendok “kaleratze-gutuna jaso zuen”. Halaxe salatu zuten astelehenan LAB-ek eta An-

gelman Sindromea Elkarteak deitu eta beste hainbat eragile batutako prentsaurrekoan.

Hoteleko arduradunek egoera bideratzeko borondatea erakutsi zuten hurrengo egunean eta atzo arratsaldean batu ziren alde biak. Batzar horretan adostu zenez, hoteleko arduradunek Mendo berriz hartuko dute. Gainera, maiatzaren 9tik —kaleratze gutuna jaso zuen egunetik— berronartzea adostu

dute; hau da, atzeraeraginezko ondorioekin. Kaleratze gutuna jaso aurreko lan baldintza berdinetan bueltatuko da, baina hoteleko arduradunak jakitun dira lan ordu murrizketa bat beharko duena, bere egoera pertsonala lanagaz uztartzeko.

Ahozko adostasun horretara heldu ziren atzo arratsaldeko batzarrean. Orain hori guztia dokumentu batean idatziz jasoko dute.

600 lagun Munduko Arrozak jaialdiko bazkarian

Errefuxiatuen egoera salatuko dute biharko jaian

DURANGO M. O.

Munduko Arrozak jaialdia ospatuko dute bihar, Durangon, jatorri askotako pertsonen integrazioaren alde. Antolatzailerik azaldu dutenez, 600 lagunek parte hartuko dute eguerdiko bazkarian. Eguraldi onagaz Ezkurdin batuko dira, eta txarragaz Jesuitetan.

Atzo egin zuten aurkezpena udaletxean, parte hartuko duten 15 elkarteetako kide batzuekin. Aitziber Irigoras alkateak esan zuen errefuxiatuen egoera salatzen aprobetxatuko dutela. “Kaleetan, errefuxiatuak hartzeko nahia igartzen da, eta udal baliabideak ere prest daude. Jar daitezela lanean”.

EAJK “gezurrak eta zinismoa” salatu ditu

DURANGO M. O.

Herriaren Eskubideak “gardentasun eta proiektu falta” salatu zuen udal aurrekontuaren harira, eta “kontratuak nahierara” egitea ere bai. Baina, Irigorasek esan du “gezurrak” direla, gobernu taldetik ez dutela legez kanpoko ezer egin. Bestalde, “zinismoa” iruditu zaie partaidetza falta kritikatu

izana; Amankomunazgoko gobernuan HE dago EH Bildugaz batera, eta Durangoko gobernuak uste dute HEk salatu duena egin duela han: “Amankomunazgoko aurrekontuan ez da parte-hartzerik egon”, esan du Ríos alkateordeak.

Horrez gain, alkateak azaldu du HEk ez zuela negoziazio-rako berba egin gura izan.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Izen-ematea

ekainaren 6tik 17ra

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgpe@mondragon.edu
943 71 21 91

2016-2017

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK



LABORAL KUTXA



Fp EUSKADI LANBIDE HEZKETA

M MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Gure Esku Dagoren adierazpen egunak eskualdeko herrietan

Berrizen, Durangon, Zornotzan eta Abadiñon antolatu dituzte

DURANGALDEA J.D.

Erabakitze eskubidearen inguruko itunera bidean, datozen asteetan adierazpen egunak antolatuko dituzte Euskal Herriko

hainbat herritan. Herri eta eskualdeko askotako adierazpena herri galdeketa izango dira. Durangaldeko hainbat herri ere lanean dabiltza jomuga hori bu-

ruan, eta, bide horretan, urrats bat izango dira adierazpen egunak. Berrizen, gaur, 19:00etan, Olakueta plazan batuko dira, besteak beste, Seiurte —akus-

tikoan— eta Etxeren musikak lagunduta.

Durangon domekan batuko dira, 12:30ean, Ezkurdin. Uda ostean herri galdeketa sinadura bilketa hasteko asmoa dute, eta, bitartean, atxikimendura bilduko diren denekin familia argazkia osatzen dabilta. Domekan familia argazkia bilbatzen jarraituko dute. Jan-edana ere izango da.

Zornotzan domekan batuko dira, 12:30ean, Herriko plazan. 13:00etan aurrekoa dantzatu eta adierazpena irakurriko dute hautestontziaren aurrean. 13:15ean herri kirolean parte hartu ahal da. Elkarlanean edozer lortu daitekeela irudikatu gura da. Musika eta bertsolariak izango dira.

Abadiñon ekainaren 12an egingo dute. Zelaieta eta Matiena lotuko dituen korrikaldia egingo dute, Matienako plazan jai batez amaituko dena, 13:00etan. Korrikaldiko lekukoa eraman gura duenak: abadinogureskudago@gmail.com.

Lehendakariari gutuna, bidesaria kentzeko eskatuz

DURANGALDEA M.O.

A-8 autobideko bidesariaren aurkako plataformak gutuna bidali dio Iñigo Urkullu lehendakariari, Durangaldeko bidesaria kendu dezaten eskatzeko. Lehendakariari esan diote “diskriminazioa” pairatzen dela eskualdean, eta horri konponbidea emateko eskatu diote. Lehendakariari ez ezik, Arartekoari ere bidali diote gutuna.

16.000 sinadura

Bestalde, plataformak sinadurak batzen segitzen du, eta joan zen domekan Durangon ospatutako Ibilaldian ere ipini zuten mahaia. Dagoeneko 16.000 sinaduratik gora batu dituzte, Juan Carlos Poderoso kidearen esanetan.



Erabakitze eskubidearen alde Durango eta Iruñea lotu zituen giza kateko irudia. G.Gaztelu-Urrutia

N-634 errepidea berrantolatuko dute Arriandi eta Berna bitartean

Aldundiak onartu berri du 3,2 milioi euro eskatuko dituen egitasmoa

IURRETA A. Basauri

Iurretako Arriandi eta Zornotzako Berna auzoen artean N-634 errepidea berrantolatzeko

proiektua onartu du Bizkaiko Aldundiak. Errepide sarea hobetu eta modernizatzeko Bidesarea planean sartzen dira lanok,

eta 3,2 milioi euroko inbertsioa eskatuko dute.

N-634 errepiderako sarbideak berrantolatuko dituzte. Horretarako, ezkerretarako biraketak kendu, eta irlatxo deflektoreak jarri dituzte sarrera-irteera guztietan. Pisatzeko baskularen inguruan dagoen noranzko aldaketa ere kendu egingo dute; horren ordez, biribilgune bat egingo dute San Migel ermitaren eta Orobio ibaiko zubiaren artean. Bestalde, N-634 eta BI-3332 errepideen arteko bidegurutzeari berrantolatu egingo dute.

Autobus geltoki berri bat ere aurreikusi dute egitasmoan, Bernabeitiarako (Zornotza) sarbidearen alboan. Argiztapena, seinaleak, balizajea eta euspen-sistemak ere hobetuko dira.



N-634 errepiderako sarbideak berrantolatu gura ditu Foru Aldundiak.

Gaztetxearen 15. urteurrena ospatuko dute zapatuan

Txupinazoagaz hasi, eta, besteak beste, Luhartz eta Erasoren musikagaz amaituko dute jaieguna

OTXANDIO J.Derteano

Otxandioko Gaztetxeak 15 urte egin ditu aurten, eta urteurren hori ospatzeko egun osoko jaia prestatu dute zapatu honetan. Herri osora zabaldu duten jaia da. “Asko eta asko izan dira gaztetxeari izaera eta izana eman zizkioten gazteak, eta norbana-ko horiek guztiak beharrezko izan dira proiektua gauzatzeko”, diote gaztetxearen kideek. Lan hori guztia eskertzeko modua ere bada jaieguna. Hain zuzen, ‘Haunditzen haunditzen’ da urteurrenari begira sortu duten leloa, urte hauetan jende askoren lanari esker apurka sendotzen joan den proiektua dela zabalteko. Logo berriak ere mezu hori islatzen du.

11:00etan txupinazoa jaurtiko dute gaztetxean, jaiegunari hasiera emateko. Goizean zehar, gaztetxe aurrean haurren txokoa atonduko dute: Body paint, graffiti tailera, puzgarriak...

13:30ean triki poteoa egingo dute, eta horren ostean, 15:00etan, bazkari herrikoian batuko dira. Bazkalostea Boceguillas Sound System-ek girotuko du.

19:00etan kalejira koloretsua hasiko dute, Andikonatik. Jaieguna musikagaz agurtuko dute. Kontzertuak gune bitan banatu dituzte: 20:00etan Andikona Plazan, eta 22:00etan plazan. Akort, Xaiko eta Erasoren taldeen kontzertuak eta Luhartzaren erromeria izango dira.



arizmendi ikastola **PRO**

konfiantzaz

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

Zure Lanerako Bidea

AURREMATRIKULAZIO EPEA ekainaren 6tik 17ra

→ TAFYD

→ Erizaintzako zaintza osagarriak

→ Mikroinformatika

→ Osasun larrialdiak

943 77 20 25 (ext.4322) • lanbide@arizmendi.ikastola.eus

www.arizmendipro.eus



dagigun!

IBILALDIA 2016 DURANGO

Eskerrik asko DURANGO



www.ibilaldia.eus

Herritar talde batek erantzukizunak eskatu dizkio EAJri ezohiko bilkuran isuna dela eta

EAJk, berriz, “pertsona batzuei nahita min egitea” leporatu dio EH Bilduri

BERRIZ Maialen Zuazubiskar Aste honetan egindako ezohiko bilkuran, Berrizek 1,8 + zergatik? plataformako kideek euren iritzia plazaratu dute Berriz

SUSA auzia dela-eta. Aurreko astetik martxan dagoen plataformako kide batek gutun bat irakurri zien gobernu taldeko kideei ezohiko bilkuran. Bertan,

“udalari dagokiola herritarrei prozesu honi buruzko azalpenak ematea” leporatu zien, eta “2003an irregulartasunak egin zituztenak aurkitu eta haieki-

ko neurriak hartzea” eskatu. Ezohiko bilkurara joan zirenek adierazi zuten, “ez daudela prest inoren akatsak herriko diruagaz ordaintzeko”.

Atxilotuta enpresa batean lapurtzearren

MALLABIA J.G.

Eibarko ertzain-etxeko ertzainek 32 urteko gizon bat atxilotu zuten astelehenean, 18:00etan, bizikleta enpresa batean lapurretan egin zuelakoan. Enpresako segurtasuneko langileek Ertzaintzara deitu zuten, gizon bat lapurretan sartu zela ohar-tarazteko. Gaineratu dutenez, hesiaren gainetik salto egiten ikusi zuten.

Ertzaintzak azaldu duenez, enpresara joaterakoan, auto bat aurkitu zuten inguruetan. Ertzainek kotxe barruan zeuden bi pertsonak identifikatu, eta enpresako materiala zeukatela baieztatu zuten. Ertzainek 32 urteko gizona atxilotuta eraman zuten. Autoan zegoen bigarren pertsona — 60 urteko emakumezkoa — atxilotuaren ama zen.



Berrizek 1,8 + zergatik? plataformako kideak ezohiko bilkuran

EAJren oharra

Gobernu taldeak, berriz, ohar batean adierazi du, “epaia ez dela bidezkoa, neurritz kanpoko dela”. Hala ere, “isunari aurre egin beharko zaiola”. Horrez gain, plan bat jorratzen ari direla adierazi dute, eta “kalte eta galerek herritarrengan ahalik eta eragin txikiena” izaten saiatuko direla.

Bestalde, “beraiei eraso egiten saiatu direla eta pertsona batzuei nahita min egin dietela” leporatu diote oharrean EAJko kideek EH Bilduri.

7 kartel lehian, Ferixa Nausikoak iragartzeko

ELORRIO M.O.

Ferixa Nausikoetako kartelaren lehia martxan dago, lanak aurkezteko epea amaitu eta gero. Antolatzaileek azaldu dute aurtengo edizioan zazpi kartel aurkeztu dituztela, eta dagoeneko ikusgai daude Iturri kultur etxeko sarreran. Ekainaren 18ra arte egongo da zabalik erakusketa, eta herritarrek botoa eman ahalko dute euren gustuko irudiaren alde.

Gero, epaimahai tekniko batek hartuko du azken erabakia, herritarren iritzia kontuan hartuta, betiere. San Joan egunaren bueltan esango dute zein kartelek irabazi duen lehia. Irabazleak 500 euroko saria poltsikoratuko du.

Ekainaren 18ra arte egongo da zabalik erakusketa, eta herritarrek botoa eman ahalko dute

hartuta, betiere. San Joan egunaren bueltan esango dute zein kartelek irabazi duen lehia. Irabazleak 500 euroko saria poltsikoratuko du.

Berdintasun ikuspegia

Antolatzaileen arabera, berdintasun ikuspegiaren galbahea pasatu dute zazpi kartelek, eta horrela, ez da mezu sexistarik zabalduko.

Aurten, irailaren 3tik 11ra bitartean ospatuko dira Ferixa Nausikoak.

Herri bideen inbentarioaren gaineko herri batzarra, 9an

IZURTZA Joseba Derteano Izurtzako Udalak herri bideen inbentarioa egingo du. Izan ere, sarritan gatazka iturri bihurtzen dira, eta inbentarioa eginda, jabetza, eskubide eta ordenantzetarako erreferentzia bihurtuko den marko bat osatu gura dute, berme administratibo guztiak eskainiko dituen.

Bide horretan, auzokideen zein interesa duten guztien parte-hartzeari garrantzia eman gura diote. Horregatik, ekainaren 9an, datorren egunean, 19:00etan, jubilatuen lokalean herri batzarra deitu dute azalpenak emateko. Batzar horretan, teknikariek erabiliko duten metodologia eta administrazio-prozedura azalduko dituzte. Horregaz batera, norik bere ikuspuntua edo testigantzak emateko aukera izango du. Herritarrak parte hartzera gonbidatu dituzte, jasotako informazioa baliagarria izango delako. Inbentarioa egiteko, zeregin horretan espezializaturik dagoen Sendo S.L. kontratatu dute. Inbetarioa osatuta, Izurtza osatzen duten hiribildu eta auzuneen historian garrantzia izan duen eta kultura ondare eta komunikaziorako zein aisialdirako erabilerak izango duen ibilbide-sarea berreskuratu gura dute.

Etorkizuneko Lan-Erronkeei Erantzuteko

ESKAINNTZA EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ

ESKAINNTZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industrialak

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINNTZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Soldadura eta Galdaragintza

SARBIDE-PROBARAKO PRESTAKUNTZA

- Goi maila: zati orokorra

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Etengabeko prestakuntza (Hobetuz)
- Langabetuentzako prestakuntza (Lanbide Ikastaroak)

DATAK

Aurrematrikula
ekainaren 6tik 17ra

Matrikula
uztailaren 11tik 15era

Tel: 94 673 02 51
e-mail: info@fpzornotza.com
www.fpzornotza.com

EDERTASUN GIDA



Amaia Salazar. Nukleo

Udarako estiloak eta aldaketak

Amaia Salazarrek Nukleo ile-apaindegia dauka, Elorrion. Uda badatorrenez, sasoi honetan eramango diren estiloak izan ditu berbegai, eta aldaketak egitera animatzen du jendea.

Ze estilo edo tendentzia aurreikusten duzu uda honetarako?

Ile ondulatu ertain eta luzeak izango dira udarako tendentziak. Trentza batez ilea lotuta, albo edota ile guztia ere bai. Trentzak nahiko deseginda eramaten dira, ia solte. Hondartzara joan eta ilea batuta eramateko aukera oso ona da.

Aldaketa batez arriskatzeko sasoi egokia al da?

Bai. Sasoi honetan jendeak asko aldatzen du estiloa. Ez dakit eguraldi onak ematen duen alaitasunagatik ote den, beroagatik ote den... Baina jendeak ilea asko mozten du, koloreagaz jolastu beharrean.

Estilo aldaketa bat egin gura duenak, Nukleon dauka aukera?

Bai, noski! Gainera, ile-apaintzaile batentzat horixe da lanik politena. Beraz, jendea aldaketak egitera animatzen dut. Ilea haziko da gero ere, eta ez dago kezkatu beharrik!



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK

Ana Camarero
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

Lehen
55€
orain
38,50€

%30eko beharapena aurpegia argitzeko tratamenduan C bitaminarekin

Ekainaren 1etik 30era

Goienkalea, 16-1.esk • 48200 Durango
Tel.: 946 817 380 • Mug.: 639 375 474



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Larreko futbol zelaia berritu eta errugbian aritzeko moldatuko dute

Belar artifiziala aldatu eta euri urak batzeko sistema ere jarriko dute



Larreko futbol zelaia eskolaren ondoan dago.

ZORNOTZA J.Derteano
Larreko futbol zelaian obra integrala burutuko du udalak udan. 400.000 euroko aurrekontuagaz, errugbian jokatzeko ere egokituko dute, besteak beste, eta iaz Zornotzan sortu zuten Urgozo taldeak bertan jokatu du hurrengo denboraldian.

Beraz, futboleko zein errugbian, bietara jokatu ahaliko da. Horretarako ipini eta kendu daitezkeen ate eta zutoin berriak ja-

rri eta zelaiko arrastoetan beharrezko aldaketak egingo dituzte.

Oro har, futbol zelaia guztiz eraberrituko dute. Gune batzuetan zorua hondoratuta dagoela eta euriagaz ur putzuak sortzen direla da arazo nagusia. Lanak amaitzean, arazo horri erremedioa jarriko diote, belar artifiziala aldatuko dute, eta, gainera, euri urak berrerabiltzeko sistema egokituko dute. Sistema horren bidez, euri urak ur-tanga batera

bideratuko dira, eta behar denean, zelaia urteztatzeko erabiliko dute. Lanak ekain amaieran hasi eta irailera amaitzea da asmoa.

Eskolan saneamendu lanak
Epealdi berean, Larrea eskolan ere hainbat lan egingo dituzte 150.000 euroguz. Saneamendu-sarea berritzeko lanak dira denetan garrantzitsuenak; faxadaren ere jardungo dute.

OHZa egokitu dute Aldundiko arauaren karga arintzeko

ZORNOTZA J.Derteano
Zornotzako Udalak 2017ra begirako ordenantza fiskalak onartu zituen astelehenean. Oro har, zerga eta tasak bere horretan mantentzea erabaki zuten. Ondasun Higiezin Zerga izan zen onartu zutenetako bat. 40 urtean, lehenengoz, Aldundiak ondasun higiezin balio katastrala eguneratu du. Balio berriak, oro har, handiagoak izango dira. Horrek, besteak beste, OHZan eragiten du. Horren aurrean, udalak bere esku dauden karga-tasak egokitu ditu zerga horren bidez biltzen duen diru kopurua dagoenean mantentzeko: "Herritarrek ez dute zertan jasan 40 urtean balioak berrikusi ez izana", azaldu zuen Iker Basagoiti zinegotziak (EAJ). EH Bilduk alde bozkatu zuen, "balio handia duenak gehiago ordainduko duelako, logikoa den moduan". Hiri Ekimena abstenitu egin zen, Aldundiko arauak ez dituelako jasotzen familien diru sarreren arabera tartearak.

Eguaztenean amaitu zituzten pilotalekuko lanak Apatan

ATXONDO J.Derteano
Zabalandi enpresak eguaztenean amaitu zituen Apatako pilotalekuko lanak, enpresako arduradunen esanetan. Askotariko lanen artean, pilotalekua erabat itxi dute polikarbonatozko egitura batez. Horrela, hauts gutxiago sartuko da barrura. Gainera, pilotalekua ixteko gehitu duten egitura hori biniloekin apaindu dute. Binilo horietan, Atxondoko auzoen izenak edo Atxondori lotutako izenak ageri dira.

Pilotalekuko aurrealdea edo ataria ere eraberritu dute. Teilatuan lehengo egitura mantendu, eta gainaldetik berri bat gehitu diote, Zabalandi arduradunek azaldu dutenez.

Pilotaleku barruan ere ibili dira lanean. Aurreko horma, ezker pareta eta harmailak berdez pintatu dituzte berriro, eta markagailu elektronikoko berri bat jarri dute. Horregaz batera, sarreran biltegi txiki bat egin dute, askotariko materiala gordetzeko balioko duena.

Lanbide Heziketan dauden aukerak, argi eta txukun

Zornotza LHII-ko ikasleek landutako tresnari esker



Aplikazioa garatu duen Zornotzako ikasleria.

ZORNOTZA J.D.
Euskal Herriko Lanbide Heziketa zikloen gaineko informazioa modu txukun eta argian jasotzen duen tresna garatu dute Zornotzako Lanbide Heziketa Ikastetxe Integratuko hainbat ikasleek. Tresna horrek, esaterako, LH zikloetan matrikula egiteko libre dauden plazen kopurua eta zikloetara sartzeko behar den nota jakiteko aukera ematen du (www.ikaslanbizkaia.eus/prestakuntza).

Bestalde, Zornotza LHII-ko dual programak teoria ikastetxean eta praktikak enpresetan egitea ahalbidetzen die ikasleei. Ikasturte honetan, 21 ikasle ikasi eta lan egingo dute alde berean. Apurka, programako ikasle kopurua handitzea dute helburu.

Omenaldia egingo diete faxistek hildakoei, urrian

Faxistek hildako 28 zaldibartar omenduko dituzte

ZALDIBAR Itsaso Esteban
Faxismoak hildako zaldibartarrei urrian omenaldia egitea onartu du udalak (EH Bilduk eta EAJk alde bozkatu zuten, eta PSE-EEko bi zinegotziak ez ziren udalbatzarrean egon).

Altxamendu faxistaren 80. urteurrena beteko da aurtan, eta errepresaliatu guztiak hartu gura dituzte gogoan: fusilatuak, borrokan hildakoak, errefuxiatuak, presoak, zaurituak zein lapurretak jasan zituztenak.

Amuategi batailoiko Primo Bastida Garitagoitia milizianoa izan zen faxismoaren kontrako borrokan hil zen lehenengo zaldibartarra, eta omenaldia egiteko, hura hil zuten eguna (urriaren 25a) aukeratzea proposatu du EH Bilduk.

Faxistek hildako 28 zaldibartarren izenak jasoko dituen oroitarri bat udalbatzak adosturiko lekuan ipintzea onartu zuten, besteak beste, joan zen eguneko udalbatzarrean.



CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)
Doako irakaskuntza ofiziala

MATRIKULA





IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- I. GRADUA
- II. GRADUA
- III. GRADUA (DBHko graduatua)

IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA

- Gaztelania atzeritarrentzat.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa (hasiera-maila).

MATRIKULA ZAITEZ
946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

Matrikula egiteko ordutegia:
Asteleheneetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00. Ostiraletan: 09:00-13:00

MATRIKULA-EPEA: ekainaren 15etik 30era eta irailaren 2tik 16ra

Kaleartean plataformagaz batzar bat egingo duela esan du alkateak

Birkalifikazioari buruzko herri galdeketa eskatzen du plataforma horrek



Independienteek eta EAJk plataformaren mozioa osoko bilkuran urgentziaz sartzearen kontra bozkatu dute, asteon.

ABADIÑO Itsaso Esteban Kaleartean merkataria eta sindikatuen plataformako kideek espero zutenaren kontra, Abadiño Udalak maiatzaren 31n egindako osoko bilkuraren gai zerrendan ez da egon joan zen astean ia mila herritarren sinaduraren babesagaz aurkeztu zuten mozioa. Murueta auzoko lursail batean supermerkatu bi zabaltzeko lur horien birkalifikazio prozesuagaz jarraitu aurretik, herri kontsulta bat egiteko eskatzen dio plataformak mozio horretan udalari.

Gaia eztabaidatu ahal izateko, mozioa osoko bilkurako zerrendan urgentziaz sartzea eskatu zuen EH Bilduk. Baina

Abadiño Independentieek eta EAJk gaia osoko bilkura horretan eztabaidatzearen kontrako botoa eman zuten. Kaleartean plataformakoek "sinadurak eta mozioa aurkeztu zituztenetik gaia lantzen" ibili direla esan zuen Jose Luis Navarro alkateak, eta asmoa agertu zuen merkatarien ordezkariekin batzartzeko. Gaia osoko bilkurako zerrendan sartzearen kontrako bere taldearen erabakia defendatzeko, "ez goaz presiopean jardutera", adierazi zuen.

Kaleartean plataformaren mozioa gai zerrendan urgentziaz sartzearen alde bozkatu, eta udal gobernuaren jarrera kritikatu zuen EH Bilduk.

"Borondate politiko falta" Martitzenean udaletxe barruan gertatutakoagatik ez, baina euren eskariak herriko merkatarien partetik jaso duten babesagatik "oso pozik" zeuden, osoko bilkuraren amaieran, Kaleartean plataformako kideak. Izan ere, plataformari babesa adieraziz, euren dendak ordubete lehenago itxi zituzten herriko dendari askok, martitzenean.

Independienteen eta EAJren "borondate politiko falta" salatu arren, pozik agertu ziren Ander Cimas eta Goretti Galan plataformako kideak, "dugun babesaz ohartu, eta, behintzat, gugaz batzartzeko asmoa publiko egin duelako gobernu taldeak".

Balkoi lehiaketan 7 lagunek parte hartuko dute

MAÑARIA M.O.

Zazpi herritarrek parte hartuko dute balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketan. Dagoeneko hasi dira etxe horietan prestatzen, eta hile hau daukate apaintzen amaitzeko. Gero, uztaile erdi ingurura arte mantendu beharko dituzte dekorazioak.

Udalak antolatzen duen lehiaketa honetan, 200 eurokoa da lehen saria, eta 100 eurokoa bigarrena. Epaimahaiak dekorazioen originaltasuna, konplexutasuna eta sormena hartuko ditu kontuan, besteak beste.

Konposta eskura, gura duenak doan hartzeko

GARAI M.O.

Garaitarrek konposta dute eskura udaletxe osteko jolasgune ondoan, eta gura duenak doan hartu dezake. Hartu eta gero, berriz ondo tapatzea da baldintza bakarra. Aldundiaren konpost plantatik ekarri dute kamioi bete, Behargintzatik bideratuta. Horrela, baserriarrek ortuetan erabili ahalko dute, ongarri moduan.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU
EH Bildu



Argazkietatik harago

Durangoko Gran Hoteleko zuzendaritzak langile bat kaleratu duela jakin dugu. Alaba zaintzeko lan jardunaldiaren murrizketa eskatu ondoren gertatu da guztia. Ez gara argazkian soilik egongo. Harago joango gara ordezkari politiko moduan. Benetan sentitzen dugu Durangoko langile bati eraso egiten diotenean, eraso hori kolektibo oso batek pairatzen duela. Eta EH Bildun kolektibo horren parte sentitzen gara. Hasierako ezintasuna, ordea, ekimen politiko bihurtu nahi dugu. Errazena litzateke salaketa publikoa egin eta argazkia ateratzea. Baina, argazkian egoteaz gain, elkartasuna adierazteaz gain, biderearen zirikitu gehiago ibiliko ditugu.

Badago eragiterik Gran Hoteleko enpresariak udaletik presionatzeko, langileen esku-bideak errespetatu daitezke. Demagun udalak ekitaldiak antolatzeko lekuen zerrendatik Gran Hotela ezabazten dugula; demagun udaleko bazkari ofizial gehiagorik ez dela bertan egiten; demagun udalak argitaratzen duen Komertzio Gidan eta Turismo Gidatik hotelaren informazioa ezabatzen dugula; demagun turismo bulegoak ematen duen informaziotik beste hotelak lehenestea gomendatzen dugula. Badago, argazkitik harago, zer egin, badago erakunde moduan nola eragin.

"Laissez faire" famatuak (egiten uzteak) eta "justiziak epaitu dezala" batzuek defendatuko duten argudioak ez du beti balio. Ez behintzat guretzat. Botere posizioetan daudenean injustuki egin diote eraso gure moduko langile bati. Horren aurrean, argazkietatik harago, hitzetatik harago, ekintzak.

DURANGALDEA ASTEON

Berriztu: bigarren eskuko azoka, domekan

BERRIZ > Bigarren eskuko azokaren 4. edizioa egingo dute, ekainaren 5ean, Berrizen. Euririk egiten ez badu, udaletxeko parkean egingo dute, eta probalekuan, bestela. 10:00etatik 15:00etara egongo da azoka zabalik. 13:00etan, Mud Candies bilbotarren kontzertua eta Bittor Camareren mural margoketa ere izango dira.

Kurdistanen aldeko jaia egingo dute Sapuetxen

DURANGO > Ekainaren 11rako antolatu dituzte Kurdistanen aldeko kontzertuak, Durangoko Sapuetxe Gaztetxean. Jimmy Muelles Beasaingo bakarlariak, Durangaldeko Nevadah taldeak, Hexen bilbotarrek, Skaleak eibartarrek eta DJ Gordi gasteiztarrek joko dute hiru euroko sarrerarekin edukiko duen kontzertuan.

Elikadura ekologikoaz berbaz, Jauregibarrian

ZORNOTZA > Ekainaren 10ean, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoa-ren Kontseiluak antolaturiko berbaldia eta ekoafaria izango dira, Jauregibarria baserrian. Xabier Uriarte medikuntzan lizentziatu eta idazleak eskainiko du berbaldia, 19:00etan, eta 30 euroan elikagai ekologikoak afaltzeko aukera izango da.

IRITZIA

Eta Erralde Berrizko proiektua? Agian horixe da Erralderen afera ulergarriago egiten duen gakoa

Bisatuta dagoen eta 350.000 euroko kostua eduki zuen proiektu batez ari naiz. Zergatik ahaztu ote dute denek proiektu hori? Lehen sektoreari beste proiektu bat ematen zion proiektua, hain zuzen!

Eta proiektu hura ez zen hiltegi bat bakarrik: ez zen hiltegi handi bat, baina zatitze-gela, erraldetxoak egiteko gela, txorizoak egiteko gela, izozkailuak... eta polibalenteak ziren ganberak zituen, adibidez, artzainen gaztak edo Ondarroako txitxarroak sartzeko baliagarriak izango zirenak, ondoren –okelarekin batera–, sukaldaritza, ikastetxeetara, ospitaleetara produktu lokala eta kalitatezko produktua ateratzeko. Erralde zaharra merkaturan kate guztien sinergiarekin eta kolektiboan pentsatuz errentagarri bihurtu izan

bagenu, bada, proiektu berriak eskura izango zuten etorkizuna.

Baina, gauzek beti daukate argibidea. 2009. urtea izango zen. Orduan, sistemaren ordezkari bat ezker abertzaleko politikari-baserriar batengana hurbildu zen, eta Erralde berria egingo zela esan zion –hau da, horretarako Europako diru-laguntzak bideratuko zirela–, kondizio baten truke: Erraldeko gerentea eta Erralde berrirako ideia aldatzen ziren unean. Gaur egun EAEn ez dagoela nahikoa produktorik, eta seguruenik kanpoan jaiotako txahalekin gizendegiak bultzatu behar direla esaten ari dira politikariak. Zeinen mesedetan? Seguruenik, bi kasualitate desberdinen atzean arrazoi berdina egingo da.

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

Elena Ariznabarreta (Durango, 1973) eta Babacar Diop (Zornotza, 1975) | La Otra Mirada elkarteak kideak |

“*Boligrafo bakoitza, kuaderno bakoitza oso garrantzitsua da*”

Durungaldeko La Otra Mirada elkarteak eskola materialez betetako 40 kaxa bidali ditu Senegalera



> BERBAZ Aitziber Basauri
Iaz hasi zen La Otra Mirada eskola materiala batzen Senegalera bidaltzeko. Mongolian ere egin du lan 2011n sortutako elkarteak, eta JAED edo Zornotzako Gurutze Gorriari lagundu die janaria biltzen. Senegalen egindako lanaz aritu gara Elenagaz eta Babacarregaz.

Eskola materiala batzeko kanpaina amaitu berri duzue. Senegalera bidean dago batutakoa. Nola joan da kanpaina?
Elena Ariznabarreta: Oso ondo. Iaz 27 kaxa bete genituen, eta aurten 40 betetzea lortu dugu. Gurpildun aulki bat eta pare bat ordenagailu ere bidali ditugu. Iaz zailagoa egin zitzaigun materiala batzea. Aurten, alde guztietatik hurreratu zaizkigu materiala ematera; jendetsua goa izan da, nolabait esateko. Oso pozik gaude.

Durangaldera zabalduak kanpaina izan da?

E.A: Bai. Durangon, Iurretan, Abadiñon, Zornotzan... ibili gara. Lauaxeta ikastetxean, adibidez, gu laguntzeko Zuhaitzaren Eguna baliatu zuten. Birziklatze bidesari bat kobratzen dute: pi-

lak, papera... eramanda txartel bat ematen dizute, eta trukean umeei landare bat ematen zaie. Aurten, guretzat eskola materiala eskatu dute, etxean ditugun hainbat gauza birziklatu daiteke-eta. Kopistegi eta liburu-dendetara ere jo dugu.

Eskola materiala eskatu duzue.
E.A: Bai. Hala ere, saltzeko bestelako objektuak ere eman dizkigute. Bigarren eskuko azoketan saltzen ditugu. Laster Berrizen ere egongo gara. Batutakoa bidaltzeko erabiltzen dugu diru hori. Horrez gain, boluntarioek egindako imitaziozko-bitiak, terapeutika-zakuak... ere saltzen ditugu; eman dizkiguten jostailu berriak ere bai.

“*Sare Birauko eskolan eguzki-plakak ipintzeko ere ari gara dirua batzen*”

Iaz hasi zineten Senegalera eskola materiala bidaltzen. Gouyar Sarr herrira (Louga) bidali zenuten, zure herrira Babacar.
Babacar Diop: Hala da. 27 kaxa jaso zituzten, denen artean zabaldu zituzten. Han boligrafo bakoitza, kuaderno bakoitza, oso garrantzitsua da. Familia guztiek ez dute aukerarik eskola materiala lortzeko. Durangaldeko herritar bakoitzak boligrafo bat edo kuaderno bat eman ez gero, premia duten Senegalgo familiei asko laguntzen zaie. Lehenengo, sabela bete behar da, gero bestea lortzeko. Zailtasun handiak dituzte. Ez da hemen bezala. Han ez dute ezer.

Aurten Sare Birou herrira (Koloda) bidali duzue bildutakoa.

B. D.: Bai. Beharizan handia dago Senegalen: eskola materiala, arropa... Eskoletan eskuz idatzita egiten da dena, arbetan... hezkuntza arloan premia handia dago. Hemen antzina egiten zen legez, arbel txikiak erabiltzen dituzte hiru eta sei urte arteko umetxoek. Dena den, bertara edateko ura eramateko ere ari gara lanean eskolako zuzendariagaz batera. Dirua bideratu dugu egitasmo horretarako.

Edateko urik ez dute?

B.D.: Ez. Umeak 08:00etan sartzen dira eskolara, eta 10:00etan irteten dira jolastordura. Orduan joaten dira inguruko etxeetara ur bila. Ezer ez dute. Komunak ere oso egoera txarrean daude. Laguntza handia behar dute. Edateko ura, informatika-gela eta komun egokiak izan ditzaten lanean ari gara. Baina, premiak handiak dira. Iaz eskola materiala jaso zutenean ere, oso pozik hartu zuten.
E.A: Sare Birauko eskola horretan eguzki-plakak ipintzeko ere ari gara dirua batzen. Horrela, eskolan argia izango lukete, eta ordenagailuren bat jartzeko aukera ere bai. Horrez gain, eskola orduak bukatzen direnerako,

“*Neskek eskolaratu beharrik ez duten ustea baino, arazoa gehiago da ekonomikoa*”

liburutegi bat ere egokitzeko aukera izango lukete, umeek zein helduek erabiltzeko. Eguzki-linternak ere bidali gura ditugu. Izan ere, inguruko herrixketatik ere joaten dira Sare Birouko eskolara umeak. Herrixkako etxeetarako oinarritzko argiztapena ere lortu gura genuke.

Nolakoa da bizimodua Senegalen?

B.D.: Hiriburuan apur bat hobeto bizi dira. Baina, hirietatik kanpo, herri txikietan, lastozko etxeetan bizi dira, errepideak eskasak dira... zaila da bizimodua. Nekazaritza dute bizibidea, baina, euriaren menpe daude.

Beraz, jasotako laguntza hau oso garrantzitsua da?

B.D.: Oso garrantzitsua. Aurretik esan bezala, oinarritzkoena jatea da, gero dator beste guztia. La Otra Mirada elkartearen lanak ez du preziorik. Ume batzuk kilometro erdi edo kilometroa egiten dute oinez, eskolara joateko. Badaude eskolak, baina, ez nahikoa. Senegaleko gobernua ez da toki guztietara heltzen, eta toki horietan ahal dutenagaz egiten dituzte eskolak gurasoek.

Ahalegin handia egiten da neska-mutilak eskolaratzeko?

B.D.: Bai. Neskato gehienak doaz eskolara, baina, arazoa ekonomikoa da. Lehen hezkuntzan gastuari aurre egiteko gai dira familia asko. Baina, hortik aurrera gastua handitzen da, eta zailagoa egiten zaie horri aurre egitea. Institutura heltzean sortzen da arazoa, beste herri batzuetara joan behar dute-eta.
E.A: Neskek eskolaratu beharrik ez duten ustea baino, arazoa gehiago da ekonomikoa.

Neskatoen eskolaratzean lan egiten du bertan Sare Birou Senny Sabaly fundazioak. Baita emakumeen genitalen mutilazioaren kontra ere. Beraiekin lan egiten duzue?

E.A: Bai. Hala ere, urteak dihardute horretan. Urtean euro bat da 1. eta 2. mailako ikasleentzako eskola materiala, eta diru hori ez duten familietan neskek etxean geratzen dira. Mutilak doaz eskolara. Senny Sabalyk nesken eskolaratzeak duen garrantziaz kontzientziaz egiten du lan; batzuetan, ekonomikoki ere lagunduz. Emakumeen genitalen mutilazioaren kontra ere ari dira lanean. Senegalen delitua da, baina, hegoaldean egiten da. Inork ez daki zer geratzen den herrixketan.

INGURUMEN GEHIGARRIA

Ingurumen
gehigarria

ZELULOSAZKO ONTZIAK
BIODEGRADAGARRIAK
ETA BIRZIKLAGARRIAK



www.soul-cemosa.es



cemosa

CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.

CEMOSA Autonomia, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
Tel.: 946 231 717 - Faxe: 946 231 799

Naturarekiko errespetua bultzatu guran Aste Berdea antolatu dute

Gaur arratsaldean Iker Maguregik Lagunkar ekimena azalduko du



Ekainaren 1etik 11ra bitartean hainbat ekitaldi antolatuko dituzte Elorrioren, Aste Berdearen barruan.

> ASTE BERDEA J.G.

Ingurumenaren Nazioarteko Aste Berdea antolatu dute Elorrioren. 'Ingurumenaren aldeko konpromiso baten truke' konposta eta tomate landareak banatu dituzte herriko plazan, goizeko hamarretatik aurrera. Arratsaldean, autoak partekatzekeo Lagunkar ekimenaren be-

rri emango du Iker Maguregik. Bihar, udaletxe atzealdean dagoen Buzkantz kaleko lursaila bisitatzeko aukera emango du udalak. Udal ordezkariak diotenez, "herriarentzat gune berde handia zabaltzeko asmoa dago herri-gunean bertan". Proiektuaren inguruan herritarrek proposamenak egiteko poston-

tzia jarriko dute udaletxean. Igandean, herriko naturbideetatik ibilaldia antolatu dute Erdella Mendi Taldeak, laguntzeko prest agertu den herritar talde batek eta Elorrioko Udalak.

Ortu agroekologikoa nola eraiki feminismotik ikastarogaz amaituko da aurten Elorrioko Aste Berdea.

Biomasa sistema ipini gura dute Mañarian

Proiektuan izena emateko eskatu du udalak

> **BIOMASA** Markel Onaindia
Proiektu berritzaile bat esku artean dute Mañarian: biomasa sistema ipini gura dute herrigunean. Mañariko basoetako adaxka eta antzerako materialekin etxeetan bero-sistema ekologikoa edukitzea da asmoa. Horrela, ingurumena babestuko dute, eta herritarrek gutxiago ordainduko dute energiarentzat. Durangaldean badaude horrelako egitasmoak, Zaldibarko edota Abadiñoko eskoletan, adibidez, baina sistema herrigunean zabalduko litzatekeen lehen proiektua da Mañariko. Baina, egia bihurtzeko, herritarrek proiektura batzea beharrezkoa da, eta udalak izena ematera animatu ditu, ekainaren 15a epemuga izanda.

Hainbat abantaila dituen sistema da biomasarena. Ikuspegi ekologikotik energia berriztagarria da, eta ez du klima aldaketa laguntzen, CO2 gasen murrizketagatik. Bestalde, herritarren poltsikoetan ere

eragiten du. Udalak egindako aurreikuspenen arabera, fakturak %10 edo %20 jaitsiko dira, gutxienez. Partaidetza minimoenagaz, adibidez, urtean 74.000 euro aurreztuko dira herri osoan, eta CO2 gasen 280 tona gutxiago erabiliko dira.

Diotenez, fakturak %10 edo %20 jaitsiko dira, gutxienez

Ekipoak mantentzeko gastuak ere saihestuko dira etxeetan.

Autobus geralekuaren ondoan egingo diren etxeen sotoan ipini gura dute galdara-gela, eta hortik, hodian bidez herrigunera zabaldu energia. Horrela, berogailua eta ur beroa eredu berriztagarri bati esker edukiko dute etxeetan, eta baita udal eraikinetan ere. Udalak batzarrak egin ditu auzokideekin, eta proiektura batzea espero du.



Ekainaren 1etik 11ra

Ekainaren 5a Ingurumenaren nazioarteko eguna izanik, Elorrioren hainbat ekintza antolatu da ingurunea zaintzeko duen garrantzia gogorarazteko.

Parte hartzera gonbidatzen zaitugu!

HITZALDIAK · Euskaraz

lagunkar
KOTXEA PARTEKATZEKO EKIMENA
Ekainak 3 · Ostirala

🕒 19:00 ITURRI IKER MAGUREGI

**KONPROMISOA
KONPOST ETA
TOMATE LANDARE
BANAKETA**
INGURUMENAREN ALDEKO
KONPROMISO BATEN TRUKE
Ekainak 3 · Ostirala

🕒 10:00 - 13:00 PLAZA

ATE IREKIAK

**BUZKANTZ
LURSAILA**
Ekainak 4 · Larunbata
ZER NAHI DUZU GUNE HONETARAKO?

🕒 10:00 - 20:00 BUZKANTZ

JOLASAK

circomotik
Ekainak 4 · Larunbata

🕒 11:30 - 14:30 BUZKANTZ

IBILALDIA

NATURBIDEAK

🕒 10:00 PLAZA

IKASTAROA · Euskaraz

ortu AGROekologikoa
NOLA ERAIKI FEMINISMOTIK
Ekainak 6 · 8 · 11

BURUJABETZAREN ALDEKO
MUGIMENDUAREN PARTAIDEA
Ekainaren 6a, astelehena, 17:00 - 20:00
Ekainaren 8a, astelehena, 17:00 - 20:00
Ekainaren 11a, astelehena, 17:00 - 14:00

🕒 ITURRI ESTIREDONDO




Elorrioko udala www.elorrio.eus

izen ematea:
genero.teknikaria@elorrio.eus / Tel.: 946 582 712

Eskolako Agenda 21eko ikasleek mugikortasun jasangarria landu dute ikasturte honetan

Ekimen honegaz, prebentzioan oinarritutako mugikortasun autonomoa eta arduratsua bultzatu gura izan dute



Ikasleak herritarren ohituren inguruko inkestak egiten.



Elorrion, ikasle bi teknikariagaz behaketa lana egiten.

> DURANGALDEA

Eskolako Agenda 21eko kide diren zentroek mugikortasun jasangarriaren gaia landu dute ikasturte honetan. Ikasleek gaia landu ostean, udaletako ordezkariekin harremanetan jarri dira, erabakiak hartzeko eskumena duten foroetara proposamenak helarazteko.

Mugikortasun jasangarriak klima aldaketa ekiditeko duen garrantzia sakondu dute ikasleek. Ismene Mandaluniz Eskolako Agenda 21eko

teknikariak azaldu duenez, ikasturte honetan prebentzioan oinarritutako mugikortasun autonomoa eta arduratsua bultzatu gura izan dute. "Helburua argi daukagu: Zero biktima!"

Eskolako Agenda 21eko ekintzak antolatzeke, Stop Accidenteseko teknikariak ikastetxeetako ikasleekin bat egin dute mugikortasun arazoak definitzeko eta hauei irtenbideak bilatzeko. Ikasleen egunerokotasunetik gertu

dauden egoerak landu dituzte diagnostikoa eta ebaluazioa egiteko. Horrela, saio teorikoa planteatu dute ikastetxearen sarrera eta irteera orduetan sortzen diren mugikortasun arazoak aztertzeke. Teknikariaren laguntzagaz mugikortasun seguruari buruzko hainbat kontzeptu landu dituzte: erantzukizuna, autonomia, errespetua, kontzientzia, elkarbizitza eta zuhurtzia, besteak beste. Ondoren, kalera atera eta ebaluazioa egin dute.

Eskolen arteko foroak

Eskolen arteko foroetan, ikastetxeen proposamenak adostu ostean, hiru garrantzitsuenak erabaki dira. Gero, udal bakoitzeko ordezkariak ikasleekin pleno aretoetan batu dira. Ikasturtean zehar egindako lana azaldu die, eta herria hobetzeko dituzten galdera eta proposamenak egitea izan da helburua.

Iazko erantzunak

Udaletan sortutako eztabaida baliatu dute iazko foroan landu-

tako *Gutxitu, Berrerabili, Birziklatu* gaiari buruz udaletan egindako proposamenen erantzuna jasotzeko. Udal arduradunek gai horren inguruan emandako pausoak azaldu dizkiete. 2015-2016 ikasturtean Abadiñon, Elorrion eta Zaldibarren hondakin organikoaren gaikako bilketa zabaldu dela aprobetxatu dute ikasleekin hondakin organikoaren bilketa berezituaren inguruan tailerrak egiteko. Gero, udaletan hainbat proposamen planteatu dituzte.

Eskola Jasangarria agiria Txintxirrentzat

Ikasturte honetan 22 ikastetxek jaso dute agiri hori



Txintxirri ikastolako ordezkariak agiria jasotzen.

2015-2016 ikasturteari dagokion Eskola Jasangarriaren agiria jaso zuen, maiatzaren 31n, Elorrioko Txintxirri ikastolako Madariaga dorretxean egindako ekitaldian. Agiri honegaz Eskolako Agenda 21 programan nabarmentzeko esperientziak

dituzten eskolak gorapaitzea da helburua. Beraien lan prozedurak, esperientziak, eta eskolaren hezkuntza, partaidetza eta jasangarritasun kalitatea aintzatetsi gura dituzte. Elorrio BHI eta Juan Orobiogoitia BHI zentroek ere agiri hori dute.

Ane Unzalu Europako Hiri Jasangarrien konferentzian

Europako politikari eta teknikarien aurrean eman du hitzaldia, Bilbon.

Ane Unzalu Iurretako Juan Orobiogoitia ikastetxeko ikasleak Europako Hiri Jasangarrien konferentzian parte hartu zuen Bilbon, apirilaren 27tik 29ra. Europako politikarien eta

teknikarien aurrean bere esperientzia azaldu zuen, ingelesez.

Ikastetxe ugari dira ikasleen heziketan ikuspegi ekologikoa barnerraten dutenak. Horietako batzuk IRAES 21 sarean

antolatuta daude, eskola iraunkor gisa izendatuta daudelako, eta, besteak beste, Confint konferentziara begira ingurumenaren aldeko proiektuak garatzen dituzte. Iaz Espainia mailako konferentzia egin zen Bartzelonan (Katalunia). Orobiogoitiako Emma Villenak, Ane Unzalu eta Iker Blancok Lourdes Totorikaguena irakasleak lagunduta egin zuten Bartzelonara bidaiari. Euskal Herriko nekazaritzaz eta euren institutuko ortu ekologikoak egin zuten berba, besteak beste. Gainera, tailerretan, landare inbaditzaileak kentzen eta mapa jasangarriak diseinatzen jardun zuten, esate baterako.



Ane Unzalu Bilboko konferentzian.

Eskola Bidea: 6 urtetik aurrerako umeak eskolara elkarregaz eta oinez joatea bultzatzeko ekimena

Berrizko Learreta Markina eskolako Guraso Elkartearen ekimenez, astelehenean ipini zuten Eskola Bidea ekimena martxan

> MUGIKORTASUNA I. Esteban Astelehen honetan ipini dute martxan Eskola Bidea ekimena, Berrizko Learreta Markina eskolako Berrizko Guraso Elkartearen ekimenez abiatu

dute proiektua. Helburua, sei urtetik aurrerako umeak eskolara euren kabuz eta oinez joatea bultzatzea da, eta, horretarako, ibilbide seguru eta aproposak diseinatu dituzte. Hiru ibilbi-

de desberdin pentsatu dituzte, umeak goizetan etxetik eskolara elkarregaz joan daitezen.

Ume eta gazteak ezezik, guraso eta herritar boluntarioek osaturiko oinezkoen taldea ere pa-

sako da hiru ibilbide horietatik. Bidean, eskolako komunitateko kideei adierazitako orduetan, *Oinbusa* deitu duten talde horretara batzen joango dira umeak.

08:35ean irtengo dira hiru ibilbideetara batuko diren oinezkoen taldeak, herriko hainbat gunetatik. Olakueta, Padura eta Errotatxotik talde bana irtengo da, eta pasealekutik egingo dute eskolarainoko bidea. Beste talde bat Legaño auzotik abiatuko da, 08:35ean, eta Abeletxe auzokoek ere talde bi osatuko dituzte goizetan eskolara oinez joateko.

Merkatarien laguntza

Etxetik eskolarako bidean umeek edozein arazo balute laguntza eskaintzeko prest dauden merkataria eta tabernarien zerrenda ere osatu dute, bestalde, Eskola Bidea ekimen honen barruan. Beraien denden atean *Eskola Bidea Merkataria Laguna* dioen pegatina ipini dute merka-

tari horiek, umeek erraz identifikatu eta euren gaitasuna jo dezaten.

Elorrioren eta Durangoren duela urte batzuk ipini zuten Eskola Bidea ekimena martxan, eta Berrizko erretan, besteak beste, ikaslearen autonomia bultzatu eta auzoko umeen arteko harremanak garatzeko helburuagaz ipini dute martxan. Autoaren erabilera aparteko bestelako mugikortasun eredu bat eta ingurumena-gazko harreman osasuntsuagoa bultzatzen ditu ekimenak.

Herriko hainbat lekutatik irtengo dira, 08:35ean, eskolara joateko

Hainbat gurasok eta boluntarioek lagunduta egingo dute umeek bidea



Olakueta bizi diren hainbat umeek pasealekutik egingo dute eskolarainoko bidea.

XXIV

Uraren Jaia

Etor zaitez!

10:30 - 14:00

Beteluriko Ur-Araztegia

Arrigorriaga

ekaina

5

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

Storm seikote durangarra, Los Juanma eta Fly Shit protagonista, gaur, Plateruenean

Rock Gaua eskainiko dute Berlingo Los Juanma taldeak, Fly Shit bergarrek eta Storm durangarrek



Zebel taldean aritu ziren lau musikaririk eta baxu-jotzaile eta biolinista berriek osatzen dute Durangoko Storm seikotea.

> MUSIKA Itsaso Esteban Sei euroko sarrera ordainduta, rock musikaren zuzeneko hiru emanaldigaz gozatzeko aukera eskainiko du Durangoko Pla-

teruena kafe antzokiak, gaur. Bergarako Fly Shit, Berlingo Los Juanma eta Durangoko Storm arituko dira, 22:30ean hasiko den jaialdian. Zebel taldean

ibilitako lau kidek, eta proiektu berrira batu zaizkien baxu-jotzaile batek eta biolinista batek osatzen dute Storm talde durangarra. Taldeko bateria-jotzailea-

ren iloba —Ekaitz— leuzemiaz hil zen, eta haren eta gaixotasun hori duten ume guztien omenez konposatu zuten kanta baten izenburua izan zen, hasiera

batean, *Storm*. Hortik dator taldeak hartu duen izena ere.

Seikote gisa orain arte eskaini dituzten kontzertu guztietan “umeez bezala gozatu” dutela diote Storm taldeko kideek, baina Plateruenean berezia izango delakoan daude. Izan ere, Berlinen Los Juanma taldea osatu duen *Lolo* MPB kide ohi eta lagunagaz elkartuko dira berrir. “Ilusio handia egiten digu, aspaldi ikusi bako lagun zaharrek elkartuko garelako”, diote batetik. Bestalde, Plateruenean baliabide teknikoekin aritzea ere “oparia” dela diote.

Storm-eko lau kidek Zebel taldean egiten zutenagaz alderatuta, badago aldaketarik proiektu berri honetan: “Doinu metaleroetatik aldendu egin gara apur bat”, diote, “eta ukitu melodikoagoak dauzkaten kantak egiten hasi gara”.

Plateruenean gaurko kontzertua baino haratago begirata, lehenengo diskoa Berrizko Lorentzo Records estudioan grabatzea darabil Storm taldeak buruan. Urtebete eman dute lokalean, grabatuko dituzten kanta horien sorreran euren “energia eta ilusio guztia” ematen.

> PROGRAMAZIOA I.E.

Areto barruko programazioa amaituta, kaleko arteen txanda da San Agustin kulturgunean. Asteon aurkeztu dute Uda Kanean Bizi kultur programazioaren XVI. edizioak —ekainaren 19tik uztailaren 22ra— Durangoko hainbat plaza eta lorategitara dakarren eskaintza: bederatzia emanaldi izango dira, guztira. Horietatik lau musika emanaldiak dira; antzezlanak bi; eta zirku eta dantza ikuskizun bana ere eskainiko dute.

Durangoko Bartolome Ertzila musika eskolako hiru taldek eskainiko duten musika ekitaldi berritzaile batez hasiko da egitaraua, ekainaren 19an. AEBetako New Orleans hirian egiten dituzten moduko “piknik musikala” antolatu dute. Honakoa da proposamena: Tabiran elkartzea, musikaz eta dantzaz gozatzea eta bazkaltzea.

Broken Brothers Brass Band, Musika eskolako Marching Band taldea eta Bart Sax arituko dira, 12:00etatik 18:30era luzatuko den hitzordu hori swing doinu eta erritmo afrikarrek betetzen. Durangoko musika eskolan sorturiko talde horiekin batera, Gasteizko Savoy Swing Up elkartek ere parte hartuko du hitzordu horretan. Swing

Piknik musikal batez hasiko da kaleko kultur egitaraua, Durangon

AEBetako New Orleansen estiloko “piknik musikal” bat antolatu dute



Besteak beste, Bart Sax taldeak parte hartuko du ekainaren 19ko Tabirako “piknik musikalean”.

dantzari buruzko tailerra eskainiko dute, 12:00etatik 13:30era, eta swingaren historiari buruzko berbaldia, 16:00etan.

Bestalde, Bartolome Ertzillako kantu ikaslea izandako beste musikari baten emanaldia ere programatu dute aurtengo Uda Kanean Bizi egitarauaren barruan. Uztailaren 14an,

20:00etan, Kuruzesantu museo-ko lorategian Amaia Urzainki durangarrak kantatuko du. Frantziako kantagintzako errepertorioa eskainiko du.

Antzerkiaren arloan, Zornotzako Markeliñerena izango da Durangoko udako kultur programazio honetako Durangaldeko sortzaileen beste ekarpen bat.

Uztailaren 1ean, *Crusoe* obra berria aurkeztuko dute, 19:00etan, musika eskolako parkean.

Azpimarraturiko Durangaldeko sortzaileen hiru emanaldi horiek ezezik, Estatuko eta nazioarteko beste sei kultur proposamen ere jasotzen ditu, ekain eta uztailerako, Durangoko Uda Kanean bizi programazioak.

Durango Hiria lehiaketako lanen estreinaldia

> MUSIKA I.E.

Ekainaren 4an, 19:00etan, Durangoko San Agustin kulturgunean izango den kontzertuan estreinatuko dituzte Silboberrri elkartek antolatu duen txistu konposizioen lehiaketaren hiru obra irabazleak. *Akelarre* eta *Siete miniaturas para txistu y piano* obregatik, lehiaketa horren lehenengo eta hirugarren sariak jaso ditu David Cantalejo txistulariak, eta Francisco José Dominguez *Seis miradas sobre...* izenburuko obra izan da bigarren sari-duna. Biharko kontzertuaren lehenengo partean eskainiko dituzte hiru obra berri horiek.

Irauli laukoteak joko du, bestalde, Durangoko Euskal Astearen programazioaren barruan jasotako emanaldiaren bigarren zatian. Ricardo Ruiz biolinistak, Natacha Dupuy biola-jotzaileak, Gabriel Mesa do biolontxelistak eta Javier Lecumberri oboe-jotzaileak osatzen dute talde hori, eta Bach eta Lecumberriren obrak eskainiko dituzte, Durangon.

Sei musika taldek joko dute datorren asteburuko Gari Rock jaialdian, Zaldibarren

Highlights eta The Riff Truckers gonbidatu dituzte, ekainaren 11n, Zaldibarko Gaztetxean jotzera

> MUSIKA Itsaso Esteban Zaldibarko Gari Rock Fest jaialdiaren laugarren edizioa ekainaren 9an hasiko da, eguenean, 20:00etan. Rocka folk doinuekin uztartzen duen Mooshine Wagon hirukote gasteiztarra arituko da egun horretan, Castet Elkarteko terrazan.

Ekainaren 9, 10 eta 11rako sei kontzertu antolatu dituzte Gari Rock jaialdiaren barruan, Zaldibarren. Aurreko edizioetan bezala, "gure ahalmenen barruan ahalik eta kalitatetik handieneko musika jaialdia eskaintzea" izan dute erronka, Iban Berasaluze Gari Rock elkarteko kidearen berbetan. "Euskal Herriko mailarik goreneko rock taldeak ekartzea" lortu dute aurten ere.

Zapatuan, ekainaren 11n joko duen Highlights da aurtengo kartelburua. "Energiaz beteriko rocka egiten dute, 70eko hamar-

kadako estiloko rocka egiten dute, oso ondo landutakoa", azpimarratu du Berasaluzek.

Egun horretan joko du, baita, azken aldian kontzerturik eskaini barik egon den The Riff Truckers taldeak ere. Lehenago ere gonbidatu izan dituzte gernikarrak Zaldibarrera, eta oraingoan, ekainaren 11ko egun osoko plana borobilduko dute euren emanaldiagaz.

Ekainaren 10a izango da Gari Rock jaialdiko Durangaldeko musikaren gaua. Yoko Out durangarrak eta Han elorriarrak arituko dira egun horretan, Zaldibarko Gaztetxean.

Doakoak edo hiru euroko sarrera duten emanaldiak izango dira guztiak. "Izan ere, gure helburua ez da etekin ekonomikoa ateratzea, ahalik eta musikazale gehien erakartzea baizik", Berasaluzek azaldu duenez.



Moonshine Wagon gasteiztarrek zabalduko dute jaialdia, eguenean.

EKAINAREN 9an
20:00etan,
• **Moonshine Wagon**
Castet Elkartean.

EKAINAREN 10ean
22:00etan,
• **Yoko Out + Han**
Gaztetxean.

EKAINAREN 11n
14:30ean,
• **herri bazkaria**
16:30ean,
• **The Reverendos**
23:00etan,
• **Highlights +**
The Riff Truckers
Gaztetxean.

GEURE DURANGALDEA

LIBE MIMENZA
Kazetaria



Kirol kazetaritza ala pito kazetaritza?

Gizonez betetako erredakzioetan sortzen dira gizonen kirola hizpide dituzten albisteak. Batzuetan, denbora tarte txiki bat soberan bada, orduantxe hitz egingo dute diktadura ez diren kirol diziplinez edota emakume kirolarien markez.

Buztan edo alu, izerdi tanta guztiak dira pareko; aitzitik, izerdia ere ez dugu parekide.

Aurten, Bera Bera esku-baloi taldeak Liga, Kopa eta Superkopa irabazi ditu. Ziurrenik izango da berria lerro hauek irakurtzean ezagutzen duenik. Erakundeen harrera apala jaso dute, bai, eta prentsan ere epel-epel pentsa tinta asko xahutu denik.

Athletic futbol taldeko emakumeek, berriz, Championserako txartela eskuratu dute. Gabarra lo eta kaleak hutsik, baina liga irabaztear daude. Albistea zeukaten emateko: ez zen kazetari bakar bat ere agertu prentsaurrekora. Hori bai, gero, pasadizoa argitaratu zuten komunikabideek, lotsagabe.

Aldiz, batzuetan, argi izpi bat agertzen da gure herri kirolari honen gailurrean. Aste honetan ireki dute Anboto Kilometro Bertikala probako izen-ematea, eta promozio bideoan nabari da mimoz zaindu dutela parekidetasuna. Halaber, Nafarroako Camille Extreme mendi lasterketak, igande honetan, urtez urte proban aritutako emakume guztiak omenduko ditu.

Baina beste kazeta bat sortu beharko dugu tankera horretako albisteak irakurri ahal izateko. Noizko kirol bazka anitza? Noiz arte ikusgarritasun miopea? Eta dena *pito* bat ez daukagulako; ez pito bat balio ez dugulako.

413 partaide lurretako XIII. Literatur Lehiaketan

Joan zen barikuan egin zuten sari banaketa

> LITERATURA I.E. Maiatzaren 27an, Ibarretxe kultur etxean egin zuten lurretako Literatur Lehiaketaren sari banaketa. Haur, gazte eta helduen

artean irakurzaletasuna eta sormena bultzatzeko antolatzen dute lehiaketa hori, eta 413 parte-hartzaile izan dituzte aurten (167 ume, 234 gazte eta 12 heldu).



Umeek, gazteek eta helduek parte hartzen dute lehiaketan.

'Siria: amodio istorio bat' filma, eguaztenean

> ZINEMA I.E.

Hilean behin nazioartean saritutako dokumental baten emanaldia Elorriora ekartzen duen zikloaren ikasturte honetako azken emanaldia izango da datorren eguaztenean. *Siria: amodio istorio bat* dokumentala emango dute, ekainaren 8an, 19:30ean, Iturri kultur etxean.

Iaz Erresuma Batuan ekotiziriko lana da *Siria: amodio istorio bat*. Amer eta Raghda-ren arteko maitasun istorioa kontatzen du filmak, kartzelan elkar ezagutu zuen bikotearena. Bi siriarrak horien bizitzaren jarraipena eginez, herrialde hartako egoera politikoaz dihardu filmak.

Trikitilari gazteen txapelketako izen ematea, zabalik

> MUSIKA I.E.

Uztailaren 3an, 18:00etan, plazan burutuko dute Trikitilari Gazteen Elorrioko III. Txapelketa, eta parte hartu gura duten panderojole eta trikitilari bikoteek txapelketan izena emateko aukera daukate, dagoeneko. Honako helbidera idatzita eman behar da izena: iturri@elorrio.net.

Hogei urte arteko musikarietako parte har dezakete txapelketan, eta antolatzaileek azaldu dutenez, sei bikote arituko dira finalean. Aurreratu dutenez, horiek baino musikari gehiagok izena emango balute, uztailaren 3an, 16:00etan, jokatuko lukete kanporaketa.

Picnic Musikala Tabiran
EKARRI ZURE PIKNIKA ETA GOZATU GUREKIN TABIRAKO ZELAIAN

Ekainaren 19a, igandea
12:00 - 18:30

12:00-13:30 Lindy Hop Dantza tailer irekia
Colectivo Savoy Swing Up (Vitoria-Gasteiz)

13:30-15:00 Musika: Broken Brothers + Bartolome Ertzilla
musika eskolako Marching Band

16:00-16:30 Historia del swing Hitzaldia

16:30-18:30 Musika + dantza:
Bart Sax (Bartolome Ertzilla musika eskola)

uda kalean bizi 2016 san agustin kultur gunea kalean
MUSIKA ZIRKOA DANTZA ANTZERKIA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

ROCK GAUA
Ekainaren 3an, 22:30etan
STORM, LOS JUANMA, FLYSHIT

OINAK LURREAN
DURANGALDEKO LURRALDE GARAPENAREN ERROKAK
EKAINAK 7
PLATERUENA KAFE ANTZOKIA DURANGO

EKAINAK 3
22:30ean
STORM, LOS JUANMA, FLYSHIT
KONTZERTUA

EKAINAK 7
9:00etan
OINAK LURREAN
JARDUNALDIK

EKAINAK 10
20:30ean
ABU & ANE
FOTONBELA
AURKEZPENEA

Javier Elorriaga | Txirrindulari ohia | **Abadiño (Lebario), 1947**

“Hunkitu egin nintzen; polita da zeure herrian omenaldia jasotzea”

Abadiñon lehiatutako txirrindularitza lasterketa batean omendu egin dute

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Oraintsu, Abadiñon egindako gazte mailako lasterketa batean Javier Elorriaga omendu dute bere txirrindulari ibilbide oparoagatik (43 garaipen) zein txirrindularitza sustatzen egindako lan handiagatik. Bizikleta denda ezagun bat ere badu Matienan. Orain, jubilatuta, kanpotik baina interesarekin bizi du bizikleta mundua.

Hunkituta ikusi omen zintuzten omenaldian.

Ni erraz emozinatzen naiz, eta han aurrean hainbeste jende ikusita... bai, hunkitu egin nintzen. Polita da zeure herrian horrelako omenaldia jasotzea.

Abadiñon urte askoan lan handia egin duzu txirrindularitza sustatzen.

Orain 28 urte txirrindularitza eskola sortu genuen, hainbat laguneren artean. Jende askoren lanari esker sortu zen. Txirrindularitza eskola, eta kadete, gazte eta afizionatuetako taldea izan zituen Abadiño Txirrindularitza Elkarteak. Urtean zehar hainbat lasterketa antolatzen genuen Abadiñon, baina, batez ere, gazteei laguntza eskaintzea zen gure helburua. Horietako batzuk gora heldu ziren, eta horrek poza ematen du, jakina. David Etxebarria, esaterako, gure taldeetan hasi zen.

Zelan dago gaur egun Abadiño txirrindularitza elkar-tea?

Nik orain hiru-lau urte utzi nuen, inork ez zuen erreleboa hartu, eta desagertu egin zen. Gero, orain urte bi, lagun talde batek Abadiño-Muntsaratz txirrindularitza taldea sortu zuen berriro. Ia beste urte pilo batean jarraitzen duten.

Gaur egun, zelan bizi duzu txirrindularitza?

Batez ere mendi bizikletan ibiltzen naiz, Lebarion dugun base-ri ingurutik, baina ez askorik ere. Bestela, txirrindularitzaren gaurkotasuna jarraitzen dut. Giroa jarraitu dut. Landagaz banuen esperantza baina... gastroenteritis batek edozein txapel-dun apaltzen du, horrelakoak etorri egiten dira.

Euskaldunok esperantza handia dugu Mikel Landarengan.


Dohain itzelak dituen txirrindularia da, dudarik barik. Ni, sasoi batean, Euskal Herriko federazioko hautatzaile lanetan aritu nintzen, eta gazte-gaztetatik, kadete adinetik, begia bota nion. Bizikletan ibiltzeko erraztasuna zuen txirrindularia zela ikusten nuen.

70eko hamarkada ia osoan profesional izan zinen, hainbat taldetan, eta 43 garaipen lortu

zenituen. Palmares oparoa da. Nire ibilbidean 157 podium ditut. Zeozer esan gura du horrek. Askotan bigarren amaitu nuen. 1976an, esaterako, 22 bider bigarren postuan geratu nintzen, eta zortzi garaipen lortu nituen. Askotan suertatzen zitzaidan ihes egindako batek irabaztea, eta gero, atzetik, tropeleko esprintean neu nagusitzea. Etapa hobeto kontrolatzea falta izan zitzaidan sarritan. Esprintean ondo moldatzen nintzen, eta erlojupekoan ere bai. Espainian korritzen diren buelta denetan etapa garaipenak lortu nituen.

Espainiako Itzulian etapa garaipen bi dituzu.

Lehenengoa 1978an izan zen, Bartzelonako Montjuic-en. Esprintean irabazi nuen. Bigarrenean, gogoan dut, etapa hasi aurretik euria eta txingorra ari zuela: zirarekin eta abarrekin ondo babestuta joateko etapa zen. Bat-batean, Belgikako talde bateko txirrindulariek arropa batzuk erantzi zituzten, eta manga laburretan geratu ziren. Egiten zuen hotzagaz! Segituan berdina egiteko esan nien taldekideei: “Hemen hasieratik gerra egongo da!”. Halaxe gertatu zen. Tropela hasieratik erabat hautsi zen, eta aurreko taldean sartzea lortu genuen. 60 bat kilometro falta zirela, erasoa jo eta ihes eginda heldu nintzen.



Traña-Matienako Elorriaga denda 1981ean ireki zuen; orain 3 urte jubilatuta zen.

Espainiako txapelketan zilar eta brontze bana ere irabazi zenituen.

Zilarra irabazi nuenekoa... esprintean irabazita nuen lasterketa izan zen. Azken unean, atzaldetik gainera sartu zitzaidan Txomin Perurena, eta bel-durtu egin nintzen. Beste talde batekoa izan balitz erreklamatu egingo nuen, eta erreklamazioa irabazi ere bai, baina, taldekide zenez, horretan utzi genuen. Brontzea nire ibilbideko azken urtean irabazi nuen. Metro erdi falta izan zitzaidan urrea irabazteko. Atzetik aurrera indartsu nentorren, besteak baino askoz arinago. Helmuga marra metro bat haruntzago egon balitz, urrea nirea izango zen.

Zure sasoiaren korritzen zenuten moduaren eta gaur egungoaren artean alde handia dago?

Ez dute zerikusirik. Errepi-deak, bizikletak eurak, medikuntza arloa... dena aldatu da. Ondorioz, korritzeko modua ere bai. Gaur egun, azkenengo kilometroetan kontrol handia egoten da lasterketetan. Talde indartsuak 50 kilometro orduko abiadan jartzen dira, eta hor ez dago tropeletik irteterik. Gure sasoiaren ere bazegoen talde lana, baina ez orain beste. Apur bat libreagoa zen dena. Gaur egun, zuzendariek telebista dute autoetan, eta txirrindulariak entzungailuak daramatzate. Dena milimetroko zehaztasunez neurtuta dago.



Montevideo Etorbidea · 48200 Durango
Koordenadak: 43.169620, -2.631006

LAISTER ETXEBIZITZA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK ERAIKIKO DIRA

INFORMAZIO
GEHIAGO

946 46 20 41

www.sukia.com

 **sukia**

Estás en tu casa.
Zure etxean zaude.

BBVA -ren finantzaketarekin

Beteranoen txapelketa eta argazki erakusketa Elorrio Rugby Taldeko 35. urteurrena ospatzeko

Zapatuan bost talderen arteko txapelketa jokatu, eta, ostean, elkarrekin bazkalduko dute



Aurtengo beteranoen taldea goian, eta orain 35 urteko lehen taldearena behean.

> ERRUGBIA J.D.

Elorrio Rugby Taldeak sortu zeneko 35. urteurrena ospatuko du zapatuan. Horretarako, beteranoen Bizkaiko txapelketa antolatu, eta herriko plazan taldearen ibilbideko argazki erakusketa prestatuko dute. Asteburu honetakoaz gainera, ekainaren 18rako egun osoko ospakizun eguna antolatzen ere badabilta.

Bihar, 10:00etatik 13:00etara, beteranoen txapelketa jokatu dute Elorrioko errugbi zelaian. Aurtun, Elorriok hartu du torneo antolatzeko ardura, 35. urteurrena dela-eta. Bost talde batuko dira: Elorrioko Azkonarrak, Durangoko Sapuzaharrak, Mungiako Torpedo Gorria, Plentziako Kakarraldo eta Gernikako Basurde Zaharrak.

Ondoren, denak elkarrekin herrian zehar poteatzen ibiliko dira Gernikako elektrotzaranga batek lagunduta. Alkartu soziedadean jarraituko du jaiak; 100 bat lagunek bazkalduko dute bertan. Arratsaldean, herriko zehar ibiliko dira berriro musikak alaituta.

35 urte askorako ematen dute. Urteetan Elorrio Rugby Taldetik igaro diren jokalariek denek osatzen dute taldeko historia. Ibilbide horren garrantzia azpimarratzeko, asteburuan klubeko sasoi desberdinak islatzen dituen argazki erakusketa antolatuko dute Herriko plazan. 100 argazkitik gora egongo dira ikusgai. Era berean, Herriko taberna batzuetan argazki horiek telebista pantailetan erakutsiko dituzte.

ADITUAREN TXOKOA

GOTZON GOMEZ

Errugbia



Irabaztea derrigorrezkoa da?

Eskolako-kirolean entrenatzaile gisa urte batzuk eman ondoren, halako galdera bat etorri zait burura, kirolaren helburuak eta ikusitako jarra batzuk aztertuta. Irabaztea derrigorrezkoa da? Emaitzetan bakarrik oinarritu behar dugu eskola kirolaren muina?

Egokitu zaigun gizarte honetan ematen du derrigorrezkoa dela irabaztea. Epe laburrak jartzen baititugu, momentukoak. Hutsegiteak, porrotak ez ditugu ontzat hartzen, eta horrek erakunde, talde eta familia askorengan sekulako ezinegona sortzen du. Ematen du beti irabazi behar dela. Egiteko joera honek ingurukoak babestera garamatza, batez ere gazteenak, beraien hutsuneak edo gabeziak ezkutatu.

Badago beste joera bat, agian ez hain hedatua, non hutsegiteak, porrotak edo gabeziak aukera moduan ikusten diren. Hutsegiteek bide egokia ondo aukeratzeko abagunea erakutsi diezaguket.

Gaitasunetan zentratuz, bigarren joera honek denok gaitasunak ditugula azpimarratzeaz gain, garapenean jartzen du indarra. Lanak eta esfortzuak ekar lezakete norberaren zein taldeko gaitasun eta trebezia ezberdinak garatzea. Muga epe ertain edo luzean jartzen da. Agian une honetan hain ona ez denak etorkizunean sekulako garapena izan dezake.

Kirolean, bide honen aldekoa naiz. Irabazteko, aurretik hainbat aldiz galdu egin behar dugu. Garaipena hobeto dastatzeko eta irabazte ona izateko, aurretik galtzaile izan beharra dago. Galdu duenak balio handiagoa ematen diolako garaipenari, eta errespetu handiz jokatzeko aurkariarekin.

Etzi zikloturista martxa egingo dute Berrizen

120 kilometro eginda, Bizkaiko kostaldetik ibiliko dira

> BIZIKLETA J.D.

Domeka honetan zazpigarren aldia egingo du Berrizko zikloturista martxak, eta berrehun bat txirindulari batuko ditu. Orografia gorabeheratsua duen 120 kilometroko ibilbidea prestatu dute antolatzaileek.

Berriz Bizikletari Elkarteak eta Berrizko Udalak askotariko babesle eta boluntarioen laguntzagaz antolatzen dute martxa. Bizkaiko federazioaren egutegiaren barruan dago, eta ez da lehiakorra, baina amateur zein goi mailako kirolarientzat hizordu proposa dela uste dute antolatzaileek. Irati Extreme, Quebrantahuesos zein Iraupen Luzeko BIBE TransBizkaia eta halako probak prestatzeko en-

trenamendu aproposa izan daiteke, besteak beste, 2.000 metroko desnibel positiboa duelako. Amateurrek, aldiz, martxa lasai hartu eta ibilbideak gordetzen dituen paisaia ederrak gozatu ditzakete.

Irteera neutralizatua 09:00etan egingo dute, Berrizko udaletxetik; amaiera ere toki berean izango da. Irteera ofiziala Muniketa magalean emango dute. Ibilbidean zehar hornidura puntu bi egongo dira: Ispasterren (60. km) eta Ixuan (100. km). Amaieran, dutxa zerbitzua eta ogitartekoak egongo dira parte-hartzaileentzat.

Aurretik izena eman ez dutenek egunean bertan emateko aukera izango dute.

Frades IronMan proben gailurrera heldu da

> IRONMANA J.D.

Gurutze Fradesek hirugarren amaitu du Brasilgo IronMana. Gainera, azken hileetan parte hartu duen IronManetan lortutako emaitza bikainetan batutako puntuei esker —Hawaii— jokatu den munduko txapelketan parte hartu du ia seguru. IronManak antolatzen

due erakundeak honakoa zehaztu du: “Oso litekeena da Gurutze munduko txapelketan izatea Kona rankingeko 8. postuan dagoelako, baina ezingo da konfirmatu uztailaren 24eko lehen sailkapen data heldu arte. Orduan, lehen 28en artean dauden munduko txapelketan parte hartuko dute”.



Gurutze Frades Brasilgo podiumean.



SkizopozikS

Eventualitate hitzperimentala by

Ekainaren 9an
eguna, 19:00etan

MARCOS GIMENO VESGAren
liburu aurkezpena eta
“SkizopozikS errezitaldi
hitzperimentala”

hitz

artekalea, 14 durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#aurkezpena

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak



Betikoak

flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



MACOBER

Eraikuntzarako materiala

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Euskal selekzioak Argentinaren eta Venezuelaren aurka jokatu du asteburuan

Basket Basque Tour 2016 txapelketako partiduak Durangon eta Zornotzan jokatu dituzte

> SASKIBALOIA J. Guenetxea
Euskal selekzioak emakumezkoen senior taldeak hiru taldeen arteko txapelketa jokatu du asteburuan, Argentinaren eta Venezuelaren aurka. Partiduak Durangoko Landako eta Zornotzako Larrea kiroldegietan jokatu dituzte. Gaur, 19:00etan, Euskadi eta Venezuelaren arteko norgehiagoka jokatu dute, Landakon. Bihar, Argentinak eta Venezuelak Larrea kiroldegian izango dute hitzordua. Azken partidua, Euskadi-Argentina, igandean izango da, 12:00etan, Larrean.

Arturo Aguado Euskal Saskibalo Federazioko presidentek azaldu duenez, "Argentinako eta Venezuelako selekzioak lan handia eginda datoz. Olinpiadaren

aurreko txapelketa prestatzen ari dira". Tabirako eta Zornotzako saskibalo taldeei eskerrak eman dizkie honelako txapelketa bat antolatzen laguntzearen. Arturo Txakartegi Euskal Selektzioaren entrenatzaileak eta Iulene Olabarria jokalaria emakumezkoen saskibaloiak bizi duen une gozoa azpimarratu dute, euren esanetan, "Gernika, Donosti Baket, Iraurgi, Araski eta Ibaizabal taldeen lanari esker".

Aurkari indartsuak
Venezuela eta Argentina indartsu datoz Durangaldeko txapelketara. Venezuela bigarren gelditu da Hegoamerikako txapelketan. Argentina, berriz, laugarren postuan sailkatu da txapelketa horretan.



Euskadiko Selektzioa, iaz, Tolosan, Venezuelaren kontrako partiduan. Luis García.

AGENDA

> PILOTA

MASTER KAIOLA

Gazte maila:

- Odriozola-Riol

- Picote III-Aizpuru

· Barikuan, 18:30ean, Zornotzako pilotalekuan.

Gazte maila:

- Aizpitarte-Lizundia

22 urtez azpiko maila:

- Lerena-Matxain

- Jamar-Arandia

· Zapatuan, 18:30ean, Zornotzan.

Gazte maila:

- Elola-Karregal

22 urtez azpiko maila:

- Egiguren-Arrizabalaga

- P.Labaka-Juaristi

· Domeka, 10:30, Zornotzan.

> IZEN-EMATEA

MALLABIKO FUTBITO MARATOIA

· Ekainak 17, 18 eta 19.

· Izen-ematea: Ekainaren 15era arte. 70 euro (669 028 718)

· Sariak: Lehena: 600 euro /

Bigarrena: 400 / Hirugarrena: 250.

Rallysprinta lehiatuko dute bihar, Zornotzan

> AUTO LASTERKETA J.D.
Bihar motor hotsak hartuko du Zornotza, Gernika Racing elkarteak IV. Rallysprint proba antolatuko du eta. Partaideen bilgunea Zelaieta parkea izango da, eta 10:00etatik 13:00etara bertan egingo dituzte egiazta-pen probak. Gidariak 14:30 inguruan abiatuko dira Zelaieta parketik errepidera. 7,58 kilometroko ibilbide bati (Etxanotik, San Migueletik eta Eubatik) hiru pasada emango dizkiote.

Euskal Herriko Rallysprint egutegiko bosgarren proba da Zornotzako. Aurreko lauretan Aingeru Castrok batu du puntuarik gehien, eta bera dago lider: Goierri eta Azpeitiako probak irabazi ditu. Iban Tarsicio abadiñarra bigarren tokian dago, Castrorengandik 39 puntura: Nañarriko proba irabazi du, baina Gabirian erretiratu beharra izan zuen. Enrique Barreneitea-Arando zaldibartarra da hirugarren sailkatua.

Uztai taldea Euskadiko txapelketako podiumean

> GIMNASIA J.D.
Durangoko Uztai taldeak hirugarren tokian amaitu du Euskadiko Txapelketa, senior mailan. Sara Sendinok, Ane

Tranchok, Ainara Ruedak eta Meritxell Mardarasek osatu zuten Gasteizen lehiatu zen gimnasia erritmiko taldea. Bizkaiako azpitxapelduna ere badira.



Uztai taldekideak podiumeko hirugarren tokian.

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1. o. - 48200 DURANGO
Tel.: 946 813 562

ETXEBITZAK ALOKAIUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

ETXEBITZAK SALGAI

DURANGO. Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

DURANGO. Errotaritxuena Atiko zoragarria 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

DURANGO. Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

ATXONDO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

ELORRIO. 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxia.

DURANGO. -Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

DURANGO. ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€-tik hasita.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guzti berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m²-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m²-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliar bat eraikitze lursaila, 3.000 m² inguruko azalerarekin.

AMOREBIETA. LARREA. 27.000 m²-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. GAZTELUA. Baseri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m²-ko lursaila baserriaren ondoan.

BERRIZ. Txaleta 1.200 m²-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

ATXONDO. Baseri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m²-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baseri bifamiliarra berrizatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkina, guzti hornitua. Ia berria, estreinatze.

BERRIZ. Baseri ederra, Murgoitio zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobek.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBITZAK SALGAI

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA



• 118m² eta terraza. Ataria. Sukalde-jangela, 4 logela, egongela, 2 komun, terraza handia. **195.000€.**

PINONDO



• 67 m² erabilgarri. Ikuspegi ederrak. Etxe guztia kanpo aldera begira. Balkoi itxia. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, komun bat. Berogailuarekin. Igogailuarekin. Bizitzen sartzeko moduan. **195.000€** negoziagarria.

GOIENKALE



• 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, despentsa eta komuna. **140.000€.**

ANTSO ESTEGIZ



• 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea jarrita, komunarekin. Berogailua gas naturalarekin. Bizitzera sartzeko moduan. **134.000€.**

FCO IBARRA



• 105 m² erabilgarri. 4 logela, egongela handia, sukaldea jarrita, 2 komun, balkoi 1. Igogailua. Berogailua. **230.000€.**

URKIAGA TORRE



• 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta berriztatua, komun bat, balkoi eta 8 m²-ko trastelekua. Bizitzera sartzeko moduan: oso eguzkitsua eta ikuspegi onak. Guztia jarrita. **117.000€.**

www.inmoduranguesado.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBITZAK SALGAI

JUAN DE OLAZARAN



• Apartamentua. Logela 1. Komuna. Sukalde esekitokiarekin. Egongela terraza eta ganbarearekin. **155.000€.**

MATIENA



• 4 Logela. Komuna. Sukalde. Despentsa. Egongela terrazarekin. Garajea aukeran. **155.000€** negoziagarria.

MURUETA TORRE



• 134 m². 4 logela. 2 komun. Sukalde-jangela. Egongela terrazarekin. EGUZKITSUA. Trastelekua eta garaje 3 leku. **299.000€.**

IURRETA



• Etxebizitza 3 logelarekin. Komuna. Sukalde eta egongela. Trastelekua. Igogailua. Berogailua. DENA BERRIA. **160.000€.**

TABIRA



• 3 logela. 2 komun. Egongela terrazarekin. Sukalde eta esekitokia. Ganbara. Garajea. Eguzkitsua. **285.000€** (Negoziagarria)

TROMPERRI



• 4 logela. 2 komun. Egongela. Sukalde. Ganbara. Garajea. Txoko komunitarioa. **243.900€.**

LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

**ALOKAIUAN
ETA SALGAI DITUZUN
HIGIEZINEN BERRI
EMAN NAHI
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau
eskaintzen dizu**

Informazio gehiagorako:
Tel.: 946 217 902
publi@anboto.org

anboto.iragarki**labur**rak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DEHETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkiaburak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Berriz. Etxe ederra herri barruan, kiroldegia eta eskolaren aurrean. Oso eguzkitsua da, eta bista zoragarriak ditu! la amaituta dago. Sukaldea, jangela, egongela, 5 logela, 3 bainu, 2 kotxerentzako garajea, eta argitasun handia duen espazio handi bat, txoko edo lan egiteko gune gisa erabiltzeko modukoa. Tel.: 651-34 80 08.

Garai. Baserria salgai. Oarbeaskoa, San Migel auzoa, 6. Garai. XVI. mendekoa. Tolare azpiegitura. Ondarea legez, Bizkaiko Foru Aldundiaren errehabilitaziorako diru-laguntza du. 10.000 m²-ko lursaila. 8.500 m²-ko belardi soroa, nahiko laua. 200m²ko baratza, fruta-arbolak. Nekazal turismoa edo nekazaritza ekologikorako aproposa. Errehabilitazioa behar du. Bifamiliarra egiteko baimena. Tel.: 639-83 34 89. Posta: jo.amantegi@gmail.com.

Mallabia. Aukerakoa, nekazaritza edo nekazaritza-turismoarako, toki eguzkitsua eta ederrean, 20.000 m² lursail. Prezio egokia, ikusi nahi baduzu, deitu. Tel.: 655-70 26 47 (19:00-21:00). Nahi izanez gero, aukera dago lursail gehiago eskuratzeko.

Mallabia. Pisu eguzkitsua, 3 logela handi, 2 komun, terraza, sukaldea eta egongela. 100 m² azalera eraikiak. Tel.: 695-77 31 41.

ERRENTAN EMAN

Durango. Barrenkalen logela bateko apartamentua alokatzen da. Guztiz berritua eta oso argitsua. Tel.: 615-73 60 36.

Iurreta. Iurretan pisua alokatzen da, 2 logela, igogailua. Zubiaurre kalea. 530 euro. Tel.: 695-71 00 69.

OPORRETAO ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Vieux Boucau (Landak). Apartamentu bat alokatzen da Landetan, Vieux Boucau herrian. Boucanier erresidentzian dago. Uztailean eta abuztuan alokatzeko. Tel.: 675-71 93 63 (Durangaldea).

Benidorm (Alacant). Sei pertsonentzako apartamentu bat alokatzen da Benidormen uztailean eta abuztuan. Alde Zaharrean. Hondartzatik oso gertu. Tel.: 649-00 89 49.

Teknologia

GAINERAKOAK

EMAN

Bidali zure ordenagailua. Zure ordenagailua hondatuta badago, zaharra bada edo zaborretara bota behar baduzu, jaso, konpondu, eta Federación Niños del Mundo elkartearen bitartez bidaliko dugu Boliviako eta Peruko ospitaleetara eta eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

Lana - negozioak

LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

Durangaldea. Lana bilatzen nabil sukaldeko laguntzaile moduan. Barruko langile moduan ere bai. Tel.: 663-98 37 78.

ETXEKO LANAK

Elorrio. Emakume arduratsuk etxe lanak egiteko eskaintzen du bere burua. Esperientzia handia. Erreferentziaduna. Tel.: 688-92 75 58. Posta: juliachans67@gmail.com.

PERTSONAK ZAINDU

Elorrio. Uztailean zehar, arratsaldetan, astelehenetik ostiralera umeak zaintzeko prest. Esperientzia handiko neska naiz. Tel.: 688-64 06 04.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen edo sukaldean lan egin nahi dut. Tel.: 631-12 70 29.

Durangaldea. Umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Tel.: 722-39 62 33.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Tel.: 632-16 37 82

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Esperientziaduna. Barneko langilea zein orduka. Tel.: 633-80 89 31.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen gizon bat naiz. Barneko zein kanpoko langilea. Orduka ere bai. Tel.: 612-48 14 70.

Durangaldea. Neska arduratsua prest dago pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Barneko zein kanpoko langilea. Esperientziaduna. Tel.: 602-32 06 50.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Tel.: 632-57 35 54.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Malgutasuna ordutegian. Tel.: 609-88 79 21.

Durangaldea. Umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Garbitasunean ere bai. Barneko edo kanpoko langilea. Tel.: 631-36 95 87.

Durangaldea. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen ditut. Barneko edo kanpoko langilea. Orduka ere bai. Garbitasunean jarduteko prest. Tel.: 688-95 95 75.

Durangaldea. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Garbiketan ere jarduten dut. Orduka edo kanpoko langile moduan. Esperientziaduna. Erreferentziaduna. Tel.: 632-16 37 82.

Durangaldea. Gizona lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzeko. Orduka, barruko edo kanpoko langilea. Tel.: 612-48 14 70.

Durangaldea. 24 urteko gizonetako pertsona nagusiak zaintzeko prest. Barneko edo kanpoko. Tel.: 612 48 14 70.

Elorrio. Gizon heldua naiz, etxe laguntzaile eta erizaintzako laguntzaile tekniko, autonomoa (gizarte segurantzari), eta euskalduna. Nire burua eskaintzen dut honelako lanetarako (egun osoan): Ohetik altxatzen laguntza (higienea, mobilizazioa barne), gosaria, bazkaria eta afaria ematea, ohera sartzera (higienea barne), kaletik paseatzea... Prezioa: 8-10 euro egun bat (jaieguna barne). Tel.: 690-28 60 71. Posta: elorrirak@yahoo.es.

IRAKASKUNTZA

Durangaldea. Batxilergoko ikaslea naiz, eta prest nago Lehen Hezkuntzako zein DBH 1, 2 eta 3ko ikasleei klase partikularrik emateko. Tel.: 688-66 87 68.

GAINERAKOAK

Durangaldea. Gizon arduratsua lan bila dabil eraikuntza eta soldatzaile moduan. Baserrian edo lorezaintzan ere jarduteko prest. Esperientziagaz. Tel.: 674-90 14 38

Durangaldea. 19 urteko mutila edozein lan duinetarako prest. Tel.: 699-25 29 62.

Durangaldea. Gizona lan bila dabil igeltsero, adreilu jartzaile, pladur jartzaile edo zeramikari moduan. Tel.: 631-06 72 62.

LAN ESKAINTZAK

OSTALARITZA

Durango. Plateruena kafe antzokiak jatetxeko zerbitzaria behar du. Baloratuko da esperientzia, euskara maila eta talde lan gaitasuna. Interesatuek

bidali curriculuma zuzendaritza@plateruena.net helbidera ekainaren 15a baino lehen.

GAINERAKOAK

Elorrio. Ile-apaintzaile lanpostua daukagu Nukleo ile-apaindegian. Tel.: 946-58 29 96.

Denetarik

SALDU / EROSI

Latxa arrazako aharia salgai. Latxa arrazako aharia saltzen dut. Hiru urte. Tel.: 946-21 82 57.

Txerrikumeak salgai.

Tel.: 692-36 69 55.

Ibilgailuak

AUTOAK

SALDU

Megane Scenic salgai. 1.6 dinamique. 2007. Tel.: 676-20 28 55. Posta: arantza58@hotmail.es.

FURGONETAK

SALDU

Furgoneta Volkswagen California T5 4 motion confortline salgai. Tel.: 646-32 34 94.

OPORRAK/BIDAIAK

SALDU

Karro-denda saldu nahi dut. Elorriko karro-denda saldu nahi dut. Ondo zaindua. Bi logela eta abantza dauka. Prezio ona. Tel.: 678-35 16 62.

Familia - etxea

GAINERAKOAK

AURKITU

Txoko bila. Txoko familiar baten bila Durangaldean. Tel.: 688-92 41 17.

EMAN

Txakurkumeak erregalatzen dira. Txakurkumeak erregalatzen dira. Telf.: 626-28 65 23.

clínicadental hortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria



ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

katerin
ardoak
iñaki
uribe



Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltzan.com

AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Ekainaren 3an, Zornotzako Ziztada Gunean

Benito Lertxundiren kantagintzari buruz

Imanol Artolagak 'Benito Lertxundiren kantagintza Euskal nazioaren eraikuntzan' berbaldua eskainiko du Zornotzako Ziztada Gunean. Berbaldiaren ostean, Lertxundiren kanten emanaldia eskainiko dute Zornotzako trikitilariak.



Dantza

:: ZORNOTZA

EKAINAREN 9an

18:00etan, Zubiaur musika eskolako hip hop eta funky erakustaldia, Zornotza Aretoan.



Musika

:: DURANGO

EKAINAREN 3an

21:30etan, Storm, Los Juanma eta Flyshit, Plateruenean.

EKAINAREN 4an

19:00etan, 'Durango Hiria' txistu kontzertua, San Agustin kulturgunean.

:: MALLABIA

EKAINAREN 4an

20:00etan, Udaberriko kontzertua, elizan.

:: ZALDIBAR

EKAINAREN 9an

20:00etan, Moonshine Wagon, Castet Elkartean.

EKAINAREN 10ean

22:00etan, Han + Yoko Out, Gaztetxean.

:: ZORNOTZA

EKAINAREN 3an

18:30etan, Zubiaur musika eskolako flauta kontzertua. Zelaletako auditorioan.

21:30etan, Cifu kantautorea, 'La otra acera de la luna' diskoa aurkezten, Bernagoitin.

EKAINAREN 6an

19:30etan, Zubiaur musika eskolako bateria kontzertua, Zelaletako kontzertu aretoan. Harizko orkestren emanaldia, Zelaletako auditorioan.

EKAINAREN 10ean

18:00etan, Zubiaur musika eskolako piano eta ganbera musika emanaldia, Zelaletako auditorioan.

19:30etan, Zubiaur musika eskolako herri musika jaialdia, Zelaletako parkean.



Zinema

:: ELORRIO

EKAINAREN 8an

19:30etan, 'Siria: maitasun istorio bat' dokumentala, Iturri kultur etxean.



Antzerkia

:: ELORRIO

EKAINAREN 10ean

22:00etan, 'Trastornos literarios', Arriolan.

:: IURRETA

EKAINAREN 3an

19:00etan, Juan Cruz Gurrutxagaren 'Umorea', Ibarretxe kultur etxean.

EKAINAREN 10ean

17:00etan, 'Txanogorritxo' umeentzako antzezlan, Ibarretxe kultur etxean.

:: ZORNOTZA

EKAINAREN 10ean

21:00etan, Zornotzako antzerki tailerkoen emanaldia, Zornotza Aretoan.



Berbaldia

:: DURANGO

EKAINAREN 7an

09:00etan, 'Durangaldeko Lurralde Garapenaren Erroñkak'. Hizlariak: Albert Cuchí, David Gutierrez-Solana, Juan Requejo, Marijo Imaz eta Joseba Garmendia, Plateruenean.

:: ELORRIO

EKAINAREN 7an

19:00etan, Jimi Jimenez: '1936ko gerra eta gure erbestea' berbaldua, Iturrin.

:: MALLABIA

EKAINAREN 3an

19:00etan, 'Banku etikoa', Kontzejuzarreen.

:: ZORNOTZA

EKAINAREN 3an

20:00etan, Imanol Artolaren berbaldua: 'Benito Lertxundiren kantagintza Euskal nazioaren eraikuntzan', Ziztada Gunean. Ondoren, trikitilarien emanaldia.

EKAINAREN 10ean

19:00etan, 'Elikadura ekologikoa haurtzaroan' berbaldua, eta afari ekologikoa, Jauregiabarria baserrian.



Urteurrena

:: OTXANDIO (Gazteak 15 urte)

EKAINAREN 4an

11:00etan, txupinazoa, Gaztetxean.

11:05etan, Haurren txokoa, Gaztetxe aurrean.

13:30etan, triki poteoa.

15:00etan, bazkari herrikoa, eta ondoren, Bodeguillas Sound System.

19:00etan, kalejira koloretsua, Andikona plazan hasita. Ondoren, ekitaldia, Gaztetxean.

20:00etan, Akort + Eraso! + Xaiko, Andikona plazan.

22:00etan, Luhartz, plazan.



Errezitaldia

:: DURANGO

EKAINAREN 9an

19:00etan, Marcos Gimeno 'Skizopoziks' liburua aurkezten, Hitz liburu-dendan.



:: DURANGO | ZUGAZA

Warcraft

- barikua 3: 19:30/22:00
- zapatua 4: 17:00/19:30/22:30
- domeka 5: 16:30/19:00/21:30
- astelehena 6: 18:30/21:00
- martitzena 7: 20:00

Acantilado

- barikua 3: 19:30/22:00
- zapatua 4: 19:30/22:30
- domeka 5: 19:00/21:30
- astelehena 6: 18:30/21:00
- martitzena 7: 20:00

Madame Bovary

- barikua 3: 19:30/22:00
- zapatua 4: 19:30/22:30
- domeka 5: 19:00/21:30
- astelehena 6: 18:30/21:00
- martitzena 7: 20:00

Alicia a través del espejo

- zapatua 4: 17:00
- domeka 5: 16:30

Angry birds

- zapatua 4: 17:00
- domeka 5: 16:30

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Warcraft: El origen

- barikua 3: 20:15
- zapatua 4: 19:30/22:00
- domeka 5: 20:00
- astelehena 6: 20:15

Ekainaren 10ean, 22:00etan, Elorrioko Arriolan

'Trastornos Literarios' antzezlan

Flavia Companyren testua oinarri hartuta prestatu du Bilboko 7Grados antzerki taldeak 'Trastornos literarios' obra. Sei antzezle jardungo dira ekainaren 10eko emanaldian, Arriolan: Ainhoa Bazterrica, Mikel Ibañez, Irrintzi Ibarrola, Ana María Llamas, Ángel Pisano eta Iñigo Sourrouille. "Sei friki delirante" dira ikuskizunaren protagonistak, eta euren bizitzen absurdoa erakusten duten hainbat egoera kontatzen dituzte 'Trastornos literarios' antzezlanean.



Andaluziara edo Costa Doradara bidaiak irabazi ezazu Anbotoren Lagun eginez

Anboto Lagunen artean lau pertsonentzako (2 heldu + 2 ume) astebeterako bidaiak zotz egingo dugu uztailaren 15ean

EROSKI bidaiak
Anboto? Egau lagun!

Anbotoren Lagunak
Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org
Tel.: 946 816 558
lagunak@anboto.org

> BOTIKAK

BARIKUA, 3
09:00-09:00

Bazan Diaz
Uribarri 5 - Durango

Iruarizaga, Karmele
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZAPATUA, 4
09:00-09:00

Irigoiñ
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Iruarizaga, Karmele
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-13:30

Unamunzaga
Muruetatorre 2C - Durango

Bazan Diaz
Uribarri 5 - Durango

Balenciaga
Ezkurdi plaza 8 - Durango

Navarro
Artekalea 6 - Durango

De Diego
Intxaurrondo 22. - Durango

Campillo
Montevideo etorb. 24 - Durango

Sagastizabal
Askatasun etorb. 19 - Durango

Bartolome
Gabiola 2 - Berriz

Eguren, Isabel
Trañabarren 15 - Abadiño

Larrañaga-Balentiaga
Berrio-Otxoa 6 - Elorrio

Melero, Rosa Mari
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

DOMEKA, 5
09:00-09:00

Unamunzaga
Muruetatorre 2C - Durango

Iruarizaga, Karmele
San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ASTELEHENA, 6
09:00-09:00

Sagastizabal
Askatasun etorb. 19 - Durango

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier
Txiki Otaegi 3 - Zornotza

MARTITZENA, 7
09:00-09:00

Etxebarria
Montevideo etorb. 2 - Durango

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier
Txiki Otaegi 3 - Zornotza

EGUAZTENA, 8
09:00-09:00

Irigoiñ
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier
Txiki Otaegi 3 - Zornotza

EGUENA, 9
09:00-09:00

Mugica
Andra Maria 9 - Durango

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00-09:00

Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier
Txiki Otaegi 3 - Zornotza

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguztaren 14:00ak arteko epea



> Zure bosgarren urtebetetzie dala eta, Zorionak, **Aretx!**



> Zorionak, **Leo**, Matienatik eta Ondarrutik. Ea oraingoan zer bururatzen zaizun.



> Ekainaren 1ean gure amatxok urteak bete zituen. Laztantxo eta musu haundi bat etxekoan partez. Marko, Maddi eta aitaren partez. Zorionak!



> Zorionak, **Iker!** Konturatu orduko 8 urte beteko dituzu. Musu potolo bat etxeko guztion partez. Zorionak, txapeldun!



> Gertasport aurre-benjaminen 2008 lan bikaina egin duzue. Zorionak, ekipo! Zorionak, Estebe!



> Maiatzaren 28an **Amets**ek 4 urte bete zituen. Gure belarri tirekadarik haundixenak eta muxu potolo pillue Ixorretako lehengusuen partez.



Ermodo, 11 - DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta batzotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturakodatuak zorion agurrekin batera.

EKAINEKO SARIAK**Anbotoren lagunak**

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558

HITZ LIBURU-DENDA.
LIBURUA ETA CDa Patrick Modianoaren "Villa Triste" liburua eta Pirritx, Porrotx eta Marimotosen "Amalur" CDa.

hitz

AKEBASO. MENUA
Bi lagunendako aste bitarteko menu exekutiboa.

akebaso

BAGOAZ BIDAIK. SPA ETA GOSARIA
Durangaldetik ordu eta erdira dagoen nekazal etxe batean egonaldia. Zapatutik domekara. Gosaria eta spa saio bat barne.

BAGOAZ BIDAIK

UNAMUNZAGA HORTZ-KLINIKA.
ESKUILA ELEKTRIKOA Hortzetako eskuila elektrikoa PC800 sensitive ORAL-B.

UNAMUNZAGA

SALTSAN KATERIN. MENUA
Bi lagunendako aste bitarteko menua.

SALTSAN

MAIATZEKO IRABAZLEAK

- > **HITZ LIBURU-DENDA.** Belen Ania Menidolagarai.
- > **URBASA ABENTURA.** Itsaso Barroeta Usubiaga.
- > **OPEN KLUB.** Unai Sanchez Pereda.
- > **IBILALDIA.** Txaketa: Janire Etxanojauregi. Izerditakoa: Peio Elexpe. Kamiseta: Iratxe Lauzirika.
- > **SALTSAN.** Amaia Zurikarai Gallastegi.

“Duela 40 urte gizonena zen soinu txikiaren mundua andrena da orain”

Soinu txikia irakasten egin duen lanagatik omenaldia egingo diote Adolfo Jainagari Mallabian

> AKUILUA Aitziber Basauri
Soinu txikia jotzen irakasten du Mallabian Adolfo Jainagak. 25 urte dira hasi zela, eta omenaldia egingo diote. Afizioa ofizio bihurtu du Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko kide honek, eta plazaz plaza darrai Narbaizarekin. “Oraindik ikusten dira batzuk inon, dantzan gelditu gabe; gozagarría da”.

Omenaldia egingo dizute Mallabiko azokaren bueltan. Nola hartu duzu albistea?

Harrituta! Nire lana egin dut, eta pribilegiatua sentitzen naiz omenaldia egingo didatelako. Bi bider ordainduta sentitzen naiz. Sekulako pagotxa!

25 urte soinu txikia jotzen erakusten. Ez da gutxi!

Ez. Konturatu gabe doa denbora. Gustura noa herri txikietara eskolak ematera. Gainerako herrietara ere bai, jakina, baina herri txikietan beste hartue man bat dago. Nagusiagoak eta gazteagoak nahastuta ikusten dituzu, eta beste elkartasun eta lotura bat dute euren artean. Baserri munduko jendea ere bada; beste tratu eta gozotasun bat, eta beste afizio bat dute. Eibarren, Markinan, Elgetan, Eskoriatzan, Legution eta Mallabian ematen ditut eskolak.

Bestelako afizioa dute?

Bai. Afizioa asko zabaldu den arren. 19 urte gaz Azpeitira joaten nintzen ni, motorrean, Sakabigaz ikastera. Orduan ez zegoen eskolarik. Ahoz aho eta era familiarrean erakusten zen. Ez ziren trititixa maisuak, beste

lanbide bat zuten (arotzak, tornulariak...) eta trikitixa osagarri bat zen. Afizioaz jotzen zuten soinua, eta diru gehigarri bat irabazten zuten batzuek.

Aldatu egin da hori...

Maisu haiekin ikasitakook sortu genituen, era masiboan, lehenengo eskolak. Bizkaian, adibidez, Iñaki Zabaletak eta Kepa Junkerak; Gipuzkoan, Joseba Tapiak eta Martin Aginagaldek. Gure belaunaldia izan zen eskolak era profesional eta masiboan zabaltzen hasi zena, ikasteko metodoak ere sortuz. Durangon zabaldu zen lehena, 1985ean; 2.a Markinan, 86an. Ordura arte, aurrez aurre jartzen ziren maisua eta ikaslea, gehienetan solfeoa jakin gabe. Maisuak jo, eta ikaslea haren mugimenduak kopiaitzen saiatzen zen.

Irakasteko modu horri jarraitzen diozu zeuk ere?

Aurrez aurre bai, baina solfeoa ere erabilita. 1996an sortu genuen metodo misto hori, Eibarren. Soinu txikira pasa aurretik, akordeoia jo nuen pare bat urtean, eta banuen formazio musikal bat. Metodoa eskola guztietara zabaltzea erabaki genuen.

Zenbat ume dituzu Mallabian?

15 ikasle. Gutxi gorabehera hala izan da beti —lehenengo urtean 19 ziren—. Justu 100 ikasle izatera heldu gara 25 urte bete diren honetan; 60 nes-



kak. Proporzio hori handiagoa da beste herrietan: %80koa da. Bitxia da bilakaera: duela 40 urte gizonena zen soinu txikiaren mundua andrena da orain. Gizartean ere errealtate bat da hori: kulturaren mundua emakumeena da, eta pozten naiz.

Soinu txikiaren moda ez da inoiz pasatu?

Izan ditu beherakadak: euskal kulturako edo zer zegoen zapalduta gerra garaian, eta diskotekak, dantzalekuak, DJak... etorri ziren gero. 90eko hamarkadan eman zen benetako loraldia. Asko zabaldu genuen soinu txikia, eta maisu asko talde handietan jotzen hasi ziren. Trikipopa eta trikirocka sortu ziren, eta soinu txikiak sekulako arrakasta lortu zuen gazteen artean. Instrumentu mugatua da musika aldetik, baina, bere sasaira egokitzen jakin izan du.

Erromerian, kalejiran, erabile-ra anitzeko instrumentua da?

Bai. Koadrilan abestu egiten genuelako hasi nintzen ni soinu handia jotzen. Afaritan-eta jotzen nuen, baina, behin Gorbealara igotzea otu zitzaigun, eta 11 kilo pisatzen du. Eraman nuen. Baina, txikiagoa zen zerbait topatu behar nuela ikusi nuen, eta soinu txikia heldu zitzaidan eskutara. Pisu erdia du.

Sekreturik badu soinu txikiak?

Ez. Jardun egin behar da. Umorea ere behar da, hori gabe ez dago instrumenturik jotzerik.

LAUHORTZA

JASONE AGIRRE GARITAONANDIA

Kazetaria



Botila batean sartutako mezua

Floridako institutu bateko ikasle batek mezu bat botila batean sartu, eta itsasora bota zuen. Handik urte bira, egunok, Kantabrian aurkitu du jubilatutako hondartzatik paseoan zebilela. Harrigarria, miraria ia, baina gertatzen dira horrelakoak.

Harritu egin nintzen ni neure ere, lehenengoan Ibilaldian, Arnaldo Otegik nire bideoak espetxean ikusten zituela esan zidanean; Nafarroan ezin, baina Errioxan polito ikusten baita ETB. Harritu egin nintzen sekula ez zaidalako burutik pasatu ere egin espetxe bateko zuloraino heldu zitekeenik nire lanik, botilan sartutako mezu bat baltitz bezala.

Zeozter idatzi eta komunikabide baten bidez zabaltzen den zeozter magikoa gertatzen da. Ez dago jakiterik noraino hel litekeen mezua. Ezin jakin mezua hori jasoko duena non egongo ote den, etxean lasai bazkaltzen, edo preso ziega batean; pozik edo triste egongo den; esandakoa interesatuko ote zaion, edo amorruta eragingo ote dion. Ezin jakin ze sentimendu sorraraziko dion. Berripaper honetako berbak irakurriko dituen, beharbada, taberna batean egongo da gosaltzen, edo autobusean lanerako bidean. Edo agian urrun egongo da, atzerrian, eta internetetik irakurtzean, etxe zati bat aurkituko du bertan.

Milaka hartzaile, milaka leku, milaka egoera. Eta mezu bat.

Behin zabaldua, ez dago nork gelditu. Agian berehala, berez hilko da mezua; edo nork jakin, beharbada betiko biziko. Baina beti izango da mirari txiki bat, urruneko hondartza batera botila batean sartuta heldu den mezua bezala.



maristak

Ikastetxea - Durango

etorkizun oso bat

www.maristak.com





Prematrikulak
Oinarrizko LH. Erdi
Goi Mailako
ZIKLOAK
Ekainak 6tik 17ra

Matrikulak
Batzilergoa
Durango 2018/19tik 2019/20ra
Zikloak

Ezagutu nahi bagaituzu, deitu eta zita bat eskatu!

Batzilergoa, Goi-Mailako Heziketa-Zikloak, Erdi-Mailako Heziketa-Zikloak, Oinarrizko Lanbide Heziketa-Zikloetarako Sarbide Proba, Enplegurako Formakuntza





